

LEKUAN LEKUKO

# anboto



## "Eusferak ingurune euskaldunagoak sortu gura ditu umeentzat, gurasoen rola aktibatuta"

Haurren unibertsoa euskaldunagoa izatea bilatzen duen familientzako ekimen berria maiatzaren 7tik 17ra gauzatuko da. Berbaro euskara elkarteko Pello Zabartek eta Kurutziaga Ikastolako Itxaso Altunak ekimenaren nondik norakoak azaldu dituzte. / 2-3

Itxaso Altuna eta Pello Zabarte.

### EGITARAUA

**Egitarau zabal bategaz, Mañaria kultur eskaintzaren erdigune bihurtuko da maiatzean / 8**

### ABADIÑO

**"Esklerosi anizkoitza diagnostikatu zidatenetik arazoei erantzunak bilatzen nabil" / 6**



IKER MUNILLA

### LITERATURA

**Leire Mendiburu itzultzaileak 'Ekologia pirata baten alde' saiakera euskarara ekarri du / 18**



### KIROLA

**"Frontoi bakoitzak bere berezitasunak ditu; ikasten nabil" / 20**

**Txaber Zabala**  
Pilota Pro Ligan logistika arduraduna



ABADIÑO

**SCHMIDT**  
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Maiatzaren 1etik 31ra

**%20KO DESKONTUA**  
sukalde eta altzarietan

Eskaintza balagarria sukaldoko altzarri guzietan, ikusi baldintzak zure Schmidt salazalearekin parte hartzen duzun dendetan

**Joseba Derteano** DURANGO

Eusfera umeen ingurunea euskalduntzea helburu duen ekimena da, gurasoak eta hurbileko komunitatea aktibatuta. 12 urtera arteko haurren eguneko hartu-eman esparruetan euskararen erabilera indartzea bilatzen du, eskolatik harago ere eraginez. Durangon elkarte, ikastetxe eta eragile askok bat egingo dute ekimenagaz. Berbarok Euskara Elkartek hartu du Eusfera bultzatzeko ardura, eta Pello Zabarte Narbaiza (Zaldibar, 1997) da bertako arduraduna. Itxaso Altuna Marina (Durango, 1986) Kurutziaga Ikastolako euskara taldeko kidea da eta ikastetxeen inplikazioa azaldu du.

**Zer da Eusfera?**

**Pello Zabarte:** Eusfera Euskal Herri osoko ekimena da eta umeentzat ingurune euskaldunagoak sortu gura ditu, gurasoen rola aktibatuta. Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak bultzatutako ekimena da. Lekuan leku, mota askotako eragileak gaude sustatzen. Durangoren kasuan, Berbarok hartu du iniziatiba bultzatzeko ardura, eta ekimenera batzeko proposamena egin diegu ikastetxeei eta udalari, batez ere. Hau da, Euskal Herriko ekimena den arren, tokiko izaera dauka, helburu beraren mesedetan, herririk herri egoki ikusten diren egitasmoak antolatzea delako asmoa. Ildo horretatik, ekimena ahalik eta partekatuen izatea gura dugunez, bilera bi egin ditugu guraso elkarteak eta ikastetxeak deituta. Ekimena ahalik eta ondoen azaltzea eta lana kolektibizitza izan da helburua, bakoitzak bere roletik ekin diezaiola.

**Egitasmoaren oinarrian beharizan hau azalarazten duten ikerketak eta datuak daude, ala gehiago da inguruan ikusten den errealitateki sortutako premia bat?**

**P.Z.:** Egitasmoa ikerketetan eta datuetan oinarritzen da, argi eta garbi. Apirilaren 22an Ebeite kooperatibako kide batek *Nola euskaldundu dezakegu gure ingurua gurasoak?* izeneko berbaldea eman zuen eta hor datu interesgarri bat eman zuten: urtean zehar, ume batek bere bizitzaren %15 ikasgelan pasatzen du gutxi gorabehera. Ordu horietan euskara bermatuta dago, baina %15 ez da nahikoa, inondik inora. Ume baten errealitatea %85 da eskolatik kanpora, eta ingurunea oso erdalduna da gaur egun. Edo eremu horretan



Pello Zabarte eta Itxaso Altuna.

## "Gurasoek euren artean dituzten hartu-emanak euskalduntzea lortuko bagenu, pauso handia emango genuke"

**PELLO ZABARTE ETA ITXASO ALTUNA EUSFERA**

Eusfera haurren ingurua, unibertsoa, euskaldunagoa izatea gura duten familientzako ekimen berria da. Gurasoen rol aktiboa bilatzen du. Euskal Herrian egingo den ariketa maiatzaren 7tik 17ra izango da

eragitea lortzen dugu edo umeen ingurua euskalduntzea oso konplikatu izango da. Adibide bat: nire belaunaldikoak umeak ginela, familia erdaldun askotan euskaraz ikusten ziren marrazki bizidunak, eta gaur egun familia euskaldun askotan erdaraz ikusten dira.

**Itxaso Altuna:** Kurutziaga Ikastolan aspalditik ikusi dugu familiak euskalduntzeko egitasmoen beharria. Gaia artezkaritzan landu eta euskara taldea sortu genuen, beharizan honi erantzuna emateko. Talde honetan askotariko jendea dago, tartean gurasoak. Batu gura duten denentzako atea zabalik dago. Gune horretatik heldu diogu Eusferari. Gure asmoa hainbat ekitaldi edo jarduera antolatzea da. Eskola orduetan euskara bermatuta dagoela deritzogu, baina eskola orduetatik

kanpora egoera aldatu egiten da. Beraz, antolatutako jarduerak eskola orduetatik kanpora izango dira. Gainera, familia erdaldunak eta etorkinak gure aldera, euskarara, zelan ekarri pentsatzen gabiltza. Ahalegin berezi bat egin gura dugu arlo horretan.

**Eusferak urte osoan zehar eragin iraunkorra izateko helburua badu ere, maiatzaren 7tik 17ra egingo da ariketa nagusia. Zeintzuk ekin-tza edo dinamika aurreikusten dituzue egun horietarako?**

**"Ahalegin berezia egin gura dugu familia erdaldunak eta etorkinak euskarara ekartzeko"**

**P.Z.:** Mota biko egitasmoak planteatzen dira. Alde batetik, 'Misioak' izenekoak. Familia bakoitzak bere etxeko ingurunea eta hizkuntza ohiturak euskalduntzeko dinamikak edo jokoak dira. Honela parte hartu daiteke: *'eusfera.taupamugimendua.eus'* atariko 'Gurasoen txokoa' atalean galdetegi bat dago, minutu batean bete daitekeena. Galtegiaren helburua da familia bakoitzaren hizkuntza errealitatea gehiago ezagutzeko. Bidalitako informazioa kontuan hartuta, errealitate horri egokitutako misio sorta bat jasoko dute. Zortzi-hamar misio dira, modu dinamiko batean egiteko, umeentzat ere dibertigarria izan dadin.

**Eta zer planteatzen da etxetik kanpora egiteko?**

**P.Z.:** Etxetik kanporako egitasmoa 'Euspazioak' deitzen da. Euskaraz berba egiteko apro-

sak diren familientzako elkar-guneak sortzea da helburua. Mota askotakoak izan daitezke eta hiru elementu bateratu izango dituzte: haurrek eta gurasoek elkarregaz parte hartuko dute, parte-hartze aktiboa sustatuko da eta euskarara hurbiltzeko aukera eskainiko dute modu atseginean, euskaraz ez dakiten edo gutxi dakiten gurasoei ere espazio hauetan parte hartzeko aukera zabaldua.

Durangon espazio bi sortuko ditugu. Batetik, mendi txango bat, inguruko naturaguneak ezagutzeko. Bestetik, familian parte hartzeko sukaldaritza tailer bat. Gero, ikastetxeei euren espazioan egiteko ekimen zehatzagoak proposatzen gabiltza. Esaterako, Landako eskolan patioan hainbat jolas familian egiteko aukera egongo da maiatzaren 8an.

**I.A.:** Kurutzia Ikastolan jaialditxo bat antolatu dugu maiatzaren 22rako. Ikastolan izango da, arratsaldean. Tailerrak eta musika egongo dira. Helburua da gurasoen eta umeen arteko hartu-emanak euskaraz izan daitezzen bultzatzea. Urtean zehar ildo horretako ekintza gehiago antolatu gura dugu.

**'Umearen zentzuna, etxean entzuna' dio esaera zaharrak. Gurasoak benetan kontziente dira hizkuntzaren esparruan ere eredu direla ala diskurtsoan bakarrik geratzen da oraindino?**

**I.A.:** Diskurtsoan geratzen da sarritan. Badago kontzientzia bat egon, baina ohiturek indar handiagoa dutela esango nuke. Guk euskara taldean komentatu izan dugu: lau eta erdiak heltzen dira, gurasoek umeak jasotzeko ordua, eta umea datorenean harrera euskaraz egin zaio, baina ondoko gurasoekin erdara hutsean dabilta, haiek ere euskaldunak izan arren. Hori egunero errepikatzen da eta ez dut uste ikastetxeetara mugatzen den errealitatea denik bakarrik. Durangoko kaleetan normalean entzuten den hizkuntza erdara da.

**P.Z.:** 'Umeen ingurua' deitzen diogun horretan gurasoek euren artean dituzten hartu-emanak ere sartzen dira. Hartu-eman horiek euskalduntzea lortuko bagenu, pauso handi bat emango genuke. Azken batean, hizkuntzaren erabilera natural irteten da, hau da, ez da horretan pentsatzen. Eusferaren helburua hori ere bada, gurasoek aktiboki horretan pentsatu dezatela.

**I.A.:** Norbere burutik hasi behar da. Autokritikoak izan behar dugu. Nire kasuan, baditut lagun batzuk euskaraz dakitenak baina erdarara jotzen dut eurekin nabilenean. Kontzientzia hori hartzea inportantea da.

**Umeek estimulu asko dute gaur egun. Zelan eragiten dute horiek umeen euskarazko sozializazioan?**

**P.Z.:** Umeen kontsumo-produktu asko, telebistan nahiz kalean, musika kontzertu batean nahiz kale animazioan, pentsatzen dugun baino erdaldunagoak dira. Umeak estimuluz inguratuta bizi dira eta horietariko asko erdaldunak dira. Eusferak modu kontzienteago batean umeei ahalik eta ingururik euskaldunena eskaintzearen gaineko hausnarketa ere proposatzen du.

## Familia giroan egiteko mendi irteera eta sukaldaritza ikastaroa, Durangon

**J.D. DURANGO**

Familiei zuzenduta, Berbaro euskara elkarteak jarduera bi antolatu ditu Eusferako egunetarako. Durangon izango da. Lehenengo hitzordua maiatzaren 10eko mendi irteera da. Ibilaldia San Roke plazatik abiatuko da, 10:30ean, eta Larrinagatxu auzotik ibiliko dira. Ibilbideak 5 bat kilometro ditu eta egiteko erraza da, antolatzaileen esanetan. Parte hartzaileek gutunazal bat jasoko dute, barruan hainbat txarteltxo dituena; ibilbidean zehar puntu jakinetan zabaldu beharko dituzte txartelak, eta bertan inguruko naturaguneei buruzko azalpenak aurkituko dituzte. Horrela, gurasoek euskaraz modu errazean eman ahal izango dizkiete azalpenak umeei. Amaieran hamaiketako egongo da denentzat.

Bigarren jarduera maiatzaren 12an da. Sukaldaritza tailerra antolatu dute. Andra Mariko elizpean izango da, 18:00etan. Partaide guztientzat eroso eta euskalduntzailea den espazio bat sortzea da helburua. Antolatzaileek nabarmendu dute

baliabideak eskainiko dituztela familia erdaldunen parte hartzea errazteko; besteak beste, errezeten inguruko berbekin osaturiko hiztegitxo bat.

Ekimen bietarako izen ematea *berbaro.eus* webgunean egin daiteke.



Mendi irteerak 5 kilometro ditu eta Larrinagatxutik ibiliko dira.

# MONDRAGON

## Lanbide Heziketa

# AURREMATRIKULA

## Maiatzaren 4tik 22ra

MONDRAGON



GIZATASUNA  
LANFAN

Finantzak  
Industria  
Benaketa  
Ezagutza

KOOPERATIBA / GERTUTASUNA / GIZARTE  
ERALDAKETA / ENPRESAREKIN LOTURA



MARKINA-XEMEIN

### ERDI MAILA

Beroa Sortzeko Instalazioak  
Mantentze-lan Elektromekanikoa  
Instalazio Elektriko eta Automatikoetako Teknikaria  
Soldadura eta Galdaragintza  
Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonel Arreta

### GOI MAILA

Administrazioa eta Finantzak  
Elkargaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea  
Automatizazioa eta Robotika Industriala  
Web Aplikazioen Garapena  
Mekatronika Industriala  
Efizientzia Energetikoa eta Eguzki Energia Termikoa  
Fabrikazio Mekanikoko produkzioaren programazioa

### ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK

Zibersegurtasuna Eragiketa-teknologiaren Inguruneetan



DERIO

### ERDI MAILAKOAK

Mekanizazioa  
Mikroinformatika Sistemak eta Sareak

### GOI MAILAKOAK

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa  
Salmentak eta merkataritza espazioen kudeaketa  
Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola  
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua  
Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa  
Automatizazioa eta Robotika Industriala

### ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK

Elkargaien Robotika  
Fabrikazio Adimentsua  
Industriaren Eraldaketa Digitala



Mañaria errekarren gaineko zubiak itxura hau hartuko du gutxi gorabehera. DURANGOKO UDALA

## Azken txanpa Durangoko trenbide zaharra bide berde izan dadin

Udalak Olleria eta Ermodo kaleen arteko trazadura egokituko du oinezkoentzat eta bizikletentzat, zatirik "konplexuena"

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udala trenbidearen trazadura bide berde bihurtzeko azken faseagaz hasi da asteon. Lanak Olleria kalean hasi dituzte, eta handik Ermodorainoko 500 metroak urbanizatuko dituzte datozen bederatzita hiletan.

Olleria eta Matxinestarta kaleen arteko atalari dagokionez, eremua berrantolatu egingo dute, espaloiak handituta, berdeguneak sortuta eta bidegorri sarea lotuta. Bestalde, Matxinestartatik Ermodorainoko zatian oinezkoentzako ardatza ipiniko dute,

eta hori Ibaizabal parkeagaz eta Musika Eskolako inguruneagaz lotu. Halaber, jarduketa nagusienetariko bat Mañaria errekarren gaineko metalezko zubia birgaitzea izango da, oinezkoentzat zein bizikletentzat. Era

**"Azken fase hau erabakigarria da ardatz osoa lotuta geratu dadin"**

MIREIA ELKORORIBI

berean, trazadura zehar berdeguneak eta egonlekuak sortuko dituzte arbolekin eta hiri-altzariekin.

Proiektuak 878.731,53 euroko esleipen aurrekontua du, eta udalak 2024ko apirilean Euskal Trenbide Sareagaz (ETS) sinatutako hitzarmenaren zati da. Hitzarmen horren bitartez, udallerriak 9.300 metro karratu baino gehiagoko lurzorua berreskuratu zuen, 2012an trenbidea lurperatzeko lanak amaitu eta gero. Mireia Elkororibe alkateak azpimarratu duenez, bide berdeko azken fasea orain arteko zatirik "konplexuena" izango da, "baita ardatz osoaren lotura osatzeko erabakigarriena ere". Lan horiekin "legegintzaldiko proiektu estrategiko bat" amaituko dutela esan du alkateak: "Mugarria ipiniko du udallerriaren konfigurazioan".



Kriskitin taldearen saioa Maiatzaren Leheneko jai batzuetan. HERRIA AUZO ELKARTEA

## Herria auzo elkarte, Maiatzaren Leheneko jaiak ospatzeko prest

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Asteburu honetan, Otamotzenaren, Aramotzen eta Askatasun Etorbidearen bueltako biztanleek Maiatzaren Leheneko jaiak ospatzeko dituzte. Herria auzo elkarteak egun biko egitaraua antolatu du. Ekitaldiak zapatuan hasiko dituzte, 10:30ean, Jaizaleko txistularien kalejiragaz.

11:00etan umeentzako bizikleta buelta, bigarren eskuko azoka eta artisautza azoka egingo dituzte. Azken horretan, Artea soinean, Kenika, Tartalo, Gorakat, Artizar, Bitxik Kool, Zua, Amuki moda, Mi casita del muérdago, Anankaia ediciones, Torontile, Arima Basque brand, Veletta, Nudame, Timba pirata

eta Carola kosmetika naturala etxeek euren produktuak salduko dituzte. Eguerdian Kriskitin dantza taldearen saioa egongo da (12:00), eta segidan bertso saioa. Eneko Abasolo 'Abarkas', Erika Lagoma eta Gorka Lazkano Unai Iturriagaren gidaritzapean arituko dira bertsoan. Arratsaldean, tute txapelketa (16:30), txokolata (17:30), Tor magoaren saioa (18:00), igel txapelketa (19:00) eta Errota taldearen erromeria izango dituzte (21:00).

Zapatuan, maiatzaren 2an, ibilgailu klasikoaren topaketa (10:30), umeentzako disko festa (17:00) eta kontzertuak izango dituzte: Julen Burgos, Iker Gomez eta Deriba (19:00).

## Euskararen erabilera bultzatzeko zikloa Durangoko gurasoentzat

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak berbaldi ziklo bat antolatu du gurasoentzat, euskararen erabilera bultzatzeko. Saiotariako batzuk euskara ulertzen dutenenentzat izango dira, eta beste batzuk hizkuntza ulertzen ez dutenenentzat. Lehenengo saioa maiatzaren 4an egingo dute *Gure seme-alabei euskararekin eta hizkuntza ohi-turekin laguntzeko erronka* izenburupean. Bertan, eskolak euskararen transmisioan dituen mugak aztertzeaz gainera, familiak seme-alaben euskararen erabilera sustatzeko izan dezaketzen eginkizuna aztertuko dute. Era berean, gaztelaniazko taldeak *Disfrutando con los idiomas*

saioa egingo du, euskara ikastearen garrantziaz eta gurasoek prozesu horretan duten eraginaz jarduteko.

Hurrengo saioak honako hauek izango dira: maiatzaren 11n, *Euskara sustatzeko baliabideak* eta *¿Cómo ayudar con las tareas escolares si no sé euskera?*; maiatzaren 18an, *Ipuina, euskaraz gozatzeko tresna* eta *Impulsando la presencia del euskera en casa con cuentos*. Azkenik, maiatzaren 25ean, *Opor kutxa* eskainiko dute, ziklo osoan zehar landutako baliabideak, tresnak eta dinamikak batzeko saioa. Jardunaldi guztiak Durangoko Udal Euskaltegian izango dira, 17:30etik 19:30era.

## "Esperantzarako deia" egin dute



DURANGOKO EH BILDUK

**E.H.** DURANGO

EH Bilduk ekitaldi politikoa egin zuen joan zen asteburuan Kurutzasantun. Arkaitz Rodriguezek "esperantzarako deia" egin zuen, eta gaineratu "garai nahasi hauen aurrean" EH Bilduk "ziurtasunak" eskaintzen dituela. Ekaitz Andueza Durangoko EH Bilduko ardura-dunak azpimarratu zuen koalizioa "prest" dagoela "datozen eraldaketan aurrean lidergo hartzeko".

## Gazte bat atxilotu dute gizon bati labanaz eraso egitea egotzita

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Ertzaintzak gazte bat atxilotu du Durangon, lesio larrien delitua leporatuta. Segurtasun Sailak emandako informazioaren arabera, joan zen domekan gizona gazte batek beste bat zauritu zuen arma zuri batez, etxebizitza batean eztabaida izan ondoren. Atxilotuak 23 urte ditu, eta biktimak 33. Ertzaintzako agenteek "larri" topatu zuten azken hori, eta larrialdi zerbitzuek Galdakako ospitalera eraman behar izan zuten. Ustezko erasotzailea etxebizitzan bertan atxilotu zuten, eta polizia-eginbideak amaiturikoan epailearen esku utzi zuten.

## LABUR-LABUR

**307 bisitari Aste Santuan**

Durangoko Udalak esan duenez, herriko zerbitzu turistikoek gorakada "nabarmena" izan dute Aste Santuan. Apirilaren 2tik 5era 307 lagunek bisitatu dute Turismo Bulegoa. 227 kontsulta erregistratu zituzten, eta beste 174 zerbitzu eskaini.

**Alokairurako 19 laguntza**

Durangoko 19 gaztek udalaren laguntza jasoko dute iazko etxebizitza alokairuei aurre egiteko. Laguntzek hileko alokairuaren %30 eta %50 artean estaliko dute, errentarako 850 euroko mugagaz. Udalak 25.300 euro erabiliko ditu laguntzotarako.

**Tabirako taberna, lehiara**

Tabirako igerilekuetako taberna kudeatzeko lizitazio prozesua martxan da. Establezimendua errentan hartu gura dutenek maiatzaren 5era arteko epea dute proposamenak Durangoko Udalarri Kontratazio Publikoaren Plataforman erabilita helarazteko. Onuradunek ekainaren 11tik irailaren 13ra bitartean eman beharko dute zerbitzua, igerilekuen ordutegi ofizialagaz bat.

**Zortzi musika taldek parte hartuko dute Bertsioen Lehiaketa Gauean**

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Aurreko urteetako arrakasta ikusita, Río de Oro Bertsioen Lehiaketa Gaue antolatu du aurten ere. Maiatzaren 23an, eskualdeko zortzi talde Plate-ruenean lehiatuko dira bertsiorik onenak norik egingo. Musikari edo talde hauen abestiak entzungo dira bertan: Aurora Beltrán, Hamlet, Nogen, The

Clash, Ken Zazpi, Biffy Clyro, MCD eta Eskorbuto. Ekitaldia 20:00etan hasiko da. Kontzerturako sarrera fisikoak Durangoko Arkarazo tabernan eta Iurretako Gauargi tabernan eskuratu daitezke, 10 euroan, eta Internet bidezkoak *entradium.com* atarian. Baturiko diru guztia Río de Oron proiektuak laguntzeko erabiliko dute.



Aurreko edizio bateko talde irabazlea. RÍO DE ORO


**Zerbitzu gehigarriak migratzaileei erregularizazio prozesuan laguntzeko**

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Mankomunitateak gizarte zerbitzuetako arreta egokitu du migratzaileei erregularizazio prozesuko eskariekin laguntzeko. "Laguntza soziala behar duten pertsonen joan-etorria handia" dela esan dute, eta, horri erantzuteko, eskaerarik handieneko tarreak indartu dituzte. Zehatz esanda, modu honetan antolatu dute zerbitzua: astelehenetik eguenera, 15:30etik 17:30era, gizarte langile bi administrazio egoera irregularrean dauden pertsonak artatzen egongo dira. Martitzen eta barikuetan zerbitzu hori bikoiztu egingo dute, gutxienez lau gizarte langileguz. Ordutegi hori 11:00etatik 14:00etara izango da. Arreta horiek gizarte zerbitzuetako egoitzan eskainiko dituzte, Galtzaretan, Kurutzia eta Nevers ikastetxeen ondoko eraikinean. Halaber, Mankomunitateak gogorarazi du garrantzitsua dela beharrezko dokumentazioagaz joatea, batez ere pasaporteagaz eta Man-

komunitateko udalerriren bateko errolda ziurtagiriagaz.

Idoia Otaduy presidentek "funtsezkotzat" jo ditu inklusioa eta gizarte kohesioa. "Zerbitzua- ren egokitzapen hori eta arretako langileen ahalegina Mankomunitateak pertsonarik ahulenekin eta Durangaldeko bizikidetzagaz duen konpromisoaren erakusgarri dira", esan du.



Gizarte zerbitzuen eraikina Galtzaretan.

# MGEP

MONDRAGON IGOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala
- | Energia Berriztagarriak **BERRIA**

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna



**TALENTU PROFESIONALA**

eskolatik - industriara

# ATE IREKIAK



**Maiatzak 9**

11:00etan

664 298 683

## "Esklerosi anizkoitza dudanetik niretzat ezinbestekoa da autosufizientea izatea"

Maiatzaren 30erako Esklerosiaren Aurkako Elkartasun ekitaldia antolatu dute Abadiñon

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Bizi gogoaren eta adoreaen eredu, horixe da Iker Munilla. 29 urteagaz esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten abadiñarrari, nerbio sistema zentralaren gaixotasuna, gaixotasun sendaezina. "Urtebete pasatu nuen mediku azterketak egiten, banekien zer bait ez zegoena ondo, eta azkenean diagnosis jaso nuen. Kolpe izugarria izan zen", esan du Muni-llak. Hala ere, abadiñarrak hasiera-hasieratik argi zuen aurrera egitea zela aukera bakarra, eta horixe egin du urte hauetan guztietan, borrokatu eta aurrera egin, nahiz eta egun bakoitza mundu bat izan. "Hasieratik argi nuen etxean negarrez geratzea ez zela aukera bat niretzat. Arzoei erantzunak aurkitu behar zaizkie, eta, horretarako, ezinbestekoa da aurrera egitea. Esklerosi anizkoitza dudanetik niretzat ezinbestekoa da autosufizientea izatea. Eta autosufizientea izateko, ahalegina eta gogoa ipintzen ditut, beharrezkoak dira", jarraitu du.

Abadiñarrak 50 urte ditu. ADEMBI Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren elkartearen lana nabarmendu gura izan du. "Diag-



Iker Munilla abadiñarra.

nosia jaso nuenean, elkartearen berri izan nuen, eta, egia esanda, izugarri laguntzen didate", esan du. Gainera, herritarrei dei egin die maiatzaren 30erako, hileko azken zapatarako, Abadiñon antolatu duten Esklerosiaren Aurkako Elkartasun ekitaldiagaz bat egiteko.

Abadiñoko Udalak antolatu du Esklerosiaren Aurkako Elkartasun ekitaldia, ADEMBI elkarteagaz eta herriko beste zenbait talderen laguntzagaz. Egun osoko jaia izango da eta gaixotasun honi eta baita beste gaixotasun neurologiko batzuei ere ikusgarritasuna ematea izango da helburua. "Ez gabiltza ekitaldi solidario bati buruz berba egiten bakarrik, pertsona batzuei eta familia batzuei buruz baino. Diagnostiko bakoitzaren atzean bizi bat dago, eta gizarte legez ezin dugu beste alde batera begiratu", esan du Edurne Maguregi alkateordeak. Asteon emandako prentsaurrekoan azaldu dutenez, elkarte honetan 1.400 pertsona daude, eta eurretatik zortzi abadiñarrak dira. "Herri-tarrei kontzientzia hartzeko eta egunagaz bat egiteko deia egiten diegu", gaineratu du Mikel Urrutia alkateak.



Traña-Matiena inguruan egiten dabilta lanak.

## Abadiño uholdeetatik babesteko lanen lehenengo fasea abiatu dute

**M.Z. ABADIÑO**

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailari atxikitako URA-Uraren Euskal Agentziak Abadiño Ibaizabalen uholdeetatik babesteko lanen lehenengo fasea hasi berri du, Laubideta eta Sarria ibaiagaz bat egiten duen tarte inguruan. Eredu honetako lanak beharrezkoak dira Abadiñon uholdeak izateko arriskua murrizteko.

Prensa ohar baten bitartez jakinarazi dute proiektua URAREN eta Abadiñoko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren esparruan gauzatu dela. "Hitzarmen horrek baterako lana ezartzen du udalerrian uholde arris-

kua murrizteko", azaldu dute. Akordio horren arabera, URA bere gain hartzen du obren finantziazioa eta lanak egikaritzea, eta udalak, bestalde, beharrezko lurrak eskura jartzen eta lotutako prozesuak kudeatzen laguntzen du. Lankidetzaz horrek erakunde biek segurtasunagaz, herritarren ongizateagaz eta ibai-ingurunearen hobekuntzagaz duten konpromiso partekatua islatzen duela ghitu dute.

### 12 hilabeteko iraupena

Bestalde, Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du lanek 2 milioi euroko inbertsioa eskatuko dutela, eta 12 hilabeteko iraupena izango dutela.

## Atxarteko errepidea konpontzeko bidean



Atxarteko errepidea.


**M.Z. ABADIÑO**

Abadiñoko Udalak Atxarteko harrobira doan errepidea konpondu eta hobetzeari ekingo dio. Udalak gogorarazi du hainbat urte dira luizi batek zorua eta urak husteko sistema hondatu zuela, eta jakinarazi du lanak egin eta gero errepidea guztiz egokituta gertatu dela. Lanek 291.523 euroko aurrekontua dute.

## Maiatzaren 23rako egun osoko egitaraua Mallabian

**M.Z. MALLABIA**

Zazpi Pago mendi lasterketaren barruan egun osoko egitaraua antolatu dute maiatzaren 23rako Mallabian. Goizean mendi lasterketak izango dira: proba luzeak 9:30ean izango du irteera, eta laburrak 10:00etan. 13:30ean sari banaketa egongo da eta ordu berean Elektrotxufla txaranga hasiko da. 14:00etan oilasko pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera egongo da, eta 16:00etan umeen lasterketa eta 17:30ean garagardo dastatzea. 19:00etan Imanol Epelderen *Zerbait sartu zait begian* ikuskizuna egongo da.



Zazpi pago mendi lasterketako iazko argazkia.

# DURANGALDEKO BERBALAGUNEN

## XVII. Kultur Lehiaketa

1. Zein da Leire Vargas idazle durangarraren azken liburua?

- a. Bihotz museo bat
- b. Dena zulo bera zen
- c. Beste zerbaít

2. Nola du izena iaz Ane Lusarretak eta Laida Zaprek Zaldibarren ireki zuten kulturguneak?

- a. Xena espazioa
- b. Xerra espazioa
- c. Xerka espazioa

3. Noiz sortu zuten Zeker musika talde elorriarra?

- a. 2025ean
- b. 2020an
- c. 2022an

4. Nola du izena Zornotzako inauterietako pertsonaiak?

- a. Sorotan Bele
- b. Patxi Bele
- c. Perubele

5. Noiz igotzen dute Donien Atxa Berrizen?

- a. San Pedro eta Santa Isabeleko jaietan.
- b. San Antonioko jaietan.
- c. Andra Mariko jaietan.

6. Nola du izena lurretako euskara elkarteak?

- a. Irmo
- b. Errime
- c. Tinko

7. Zenbat biztanle zituen 2025ean Abadiñok?

- a. 8. 111
- b. 6.734
- c. 7.768

8. Zein da Durangaldeko herririk garaiena?

- a. Garai
- b. Otxandio
- c. Mañari

9. Eskualdeko zein herritan dago Santo Tomas parkea?

- a. Iurreta
- b. Izurtza
- c. Zaldibar

10. Mañaritik Atxetara mendí lasterketak, zenbatgarren edizioa ospatuko du aurten?

- a. Hirugarrena
- b. Laugarrena
- c. Bigarrena

11. Bizkaian bost deiadar mendí daude. Hauetako zein ez da deiadar mendia?

- a. Anboto
- b. Gorbeia
- c. Kolitza

12. Nork antolatu du Mañariko I. Gazte eguna?

- a. Mañariko udalak
- b. Mañariko gazteek
- c. Mañariko nagusiek

### AMAITU ATSOTITZ HAUEK:

13. Ulertze onari...

- a. ...hitz gutxi
- b. ...kasu gutxi
- c. ...arrazoi gutxi

14. Bururik ez eta...

- a. ...txapela ere ez
- b. ...arrazoi ere ez
- c. ...txapela nahi

15. Idari adarretatik,

- a. txakurrari buztanetik
- b. pertsonari hitzetik
- c. umeari belarritik



IZEN-ABIZENAK:

HERRIA:

TELEFONOA:

Erantzun zuzenak markatu eta entregatu Durangaldeko edozein euskaltegitan, maiatzaren 15a baino lehen



SARIA: 6 kultur saski



EMAN IZENA

# EUSKARA ZU



**Berba lagun** 639 400 786 ©  
praktikatu.eus/blog/durangaldea  
durangaldea@aek.eus



# Mañariak 'Maiatza Kulturala' egingo du maiatzaren 9tik 24ra, eskaintza zabalagaz

'Arri' ikuskizun maratoia eta Andramariren ospakizuna dira ekimen batzuk

**Joseba Derteano** MAÑARIA

Aurten ere 'Maiatza Kulturala' egingo dute Mañarian, maiatzaren 9tik 24ra bitartean, askotariko kultur ekintzez osatutako egitarauagaz. Antzerkia, kontzertuak, berbaldiak, ikuskizunak eta azoka izango dira, besteak beste, herriko kale eta guneeetan. Ekimenaren helburua da herri-tarren artean kultura bultzatzea, sorkuntza artistikoaren garrantzia nabarmentzea eta adin guztietako publikoarentzat aisialdi eskaintza anitza eskaintzea. Mañariko Udalaren eta herriko elkarte eta eragileen artean osatu dute egitaraua, udalak ohar batean azaldu duenez.

## Andramariren ospakizuna

Andra Mari dantza taldeak sortu zeneko 40. urteurrena ospatuko du maiatzaren 23an. Egun osoko egitaraua izango da eta bertan gaur egungo dantza taldeek (txikienetatik hasita nagusietaraino, ezpatadantzari taldeak...) eta urte hauetan guztietan taldean ibilitako dantzari ohiek parte hartuko dute. Azken hauen artean, 80 urtetik gorako dantzariak batuko dira.

Eguna kalejira bategaz hasi ondoren, dantza saio nagusia frontoian egingo dute; Dantzari Dantza, gorulariak eta beste dantzaren bat ere egingo dute. Horrez gainera, taldearen sorreran eta ondorengo ibilbidean garrantzitsuak izan diren pertsonak omenduko dituzte. Eguna borobiltzeko, 18:00etan,



Swingtronics taldeak kontzertua emango du 'Arri' ekimenaren barruan.

Lorraz taldeak erromeria egingo du plazan.

## Arri ekimena

Maiatzaren 16an, Arri ekimenaren barruan, formatu txikiko pieza artistikoak ikusi ahal izango dira herriko hainbat gunetan. Korrala Sormen Gunea ibili da antolaketa lanetan. "Ikusleek ibilbide bat osatu behar dute pieza guztiak eza-gutzeko, antzerki-ginkana moduko esperientzia batean", azaldu du Korralako kidea den Cecilia Paganinik.

Ibilbide orria 17:00etan banatuko dute, plazan. Ibilbide orriak tokiak, orduak eta piezak zehaztuko ditu. Tokiak sekretuak izango dira ordura arte. Ikusluzinei dagokienez, denerik egongo da: soka finkoa eta clowna uztartzen dituen pieza NiMú taldeko Sandra Gutierrezen es-

kutik, dantza garaikidea Ibawa kolektiboagaz, KARRIKA Antzerki Taldearen antzezlanak, Korrala Sormen Guneako ikasleek sortutako pieza, Maria Urcelayren monologo komikoa, eta Swingtronics taldearen kontzertua, swing eta rock doinuak uztartzen dituenak.

Egitaraua hainbat kultur ekimenek osatuko dute hile osoan zehar. Besteak beste, maiatzaren 9an *Arizona* antzezlanak mugei, migrazioari eta giza hartu-emaneei buruzko gogoeta tragikomikoa proposatuko du. Maiatzaren 17an Oreka TX taldearen kontzertua izango da eta maiatzaren 22an Gar proiektu musikalak zuzeneko emango du Errekondon. Amaitzeko, maiatzaren 24an Euskal Azoka egingo dute, eta baita Euskadiko Azpi Gorri lehiaketa ere. Horregaz amaituko dute Maiatza Kulturala.

## EGITARAUA

### MAIATZAK 9

• 19:00 Kultur etxean. Antzerkia: 'Arizona'.

### MAIATZAK 10

• 12:30 Plazan. Kantu poteoa, Kirikiño abesbatzaz.

### MAIATZAK 12

• 18:00 Errekondon. Sendabelarren ukenduak egiteko tailerra.

### MAIATZAK 14

• 18:30 Kultur etxean. Berbaldia: 'Mañaria eta inguruko hegaztiak ikertzen'.

### MAIATZAK 15

• 19:00 Kultur etxean. 'Aberrriak eta atzerriak'.

### MAIATZAK 16

• 17:00 herrian zehar. Ikuskizun maratoia: 'Arri'.

• 20:00 Plazan. Musika: Swingtronics.

### MAIATZAK 17

• 12:00 Angurretan. Musika: Oreka Tx.

### MAIATZAK 18

• 18:00 Plazan. Mural margoketa.

### MAIATZAK 20

• 18:00 Kultur etxean. Film emanaldia: 'Sorginak'.

### MAIATZAK 22

• 20:00 Errekondon. Musika: Gar.

### MAIATZAK 23

• Egun osoan zehar. Andramari taldearen 40 urteurrena.

• 18:00 Plazan. Lorraz.

### MAIATZAK 24

• 11:00 Plazan. Euskal Azoka eta Euskadiko Azpi Gorri Txapelketa.

## Izurtzako aterpetxean boluntario aritzeko izen ematea, martxan

J.D. IZURTZA

Ekainaren 26tik abuztuaren 28ra, Rio de Oro udalekuak eskainiko dizkie Saharako umeei, Izurtzako aterpetxean. Eta egonaldi hori behar den moduko atsegina izan dadin, elkartek kanpaina bat hasi du begiraleak bilatzeko. Bederatzi aste antolatuzte, eta begirale bakoi-tzak astebetz jardun beharko du gutxienez, eta bi astez gehienez. Interesdunek *riodeorodurango.com* helbidean egin ditzakete inskripzioak maiatzaren 28a baino lehen. Astebeteko lan boluntarioa egin gura duenak 20 euroko inskripzioa ordaindu beharko du. Aste bikoa gura duenak, 30 euro.

## Euskara ikasten dabilzanei bideratutako diru laguntza Elorrión

J.D. ELORRIO

Elorrioko Udalak diru laguntza deialdi bi abiatu ditu euskara bultzatzeko. Lehenengo deialdiak 2025-2026 ikasturtean euskara ikastaroetara joaten diren eta Elorrión erroldatuta dauden herritarrei lagunduko die. Matrikularen zati bat diruz lagunduko da. Guztira, 11.600 euroko aurrekontua erabiliko dute laguntza horietarako. Bigarren diru laguntzak autoaren gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz gaintzen duten 17tik 25 urtera arteko elorriarrak ditu jomuga. Kasu honetan, lehenengo lau klase praktikoaren kostuaren zati baterako izango da dirua, gehienez 200 eurora arte.

# PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

# 1.190m<sup>2</sup>

**ZARATE ELEXPE**

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73  
Mug.: 649 40 26 23  
zarateyexpe.com



Oihal margotuak Zornotzako balkoietan eskegita. ZORNOZA ELKARTEA

## 'Zintzilik' pintura lehiaketaren gaia 'Zornotzako txokoak' izango da

**Ekaitz Herrera** ZORNOTZA  
Zornoza elkarte artistiko eta kulturalak *Zintzilik* lehiaketaren beste edizio bat ipini du martxan. Elkarrekin herriko artistak eta margolariak deitu ditu oihaletan margolanak egitera eta horiek etxebizitzetako balkoietan eskegitzera. Aurtengo gaia *Zornotzako txokoak* izango da, eta, horrenbestez, artistek herriko kaleak, zubiak, kale-argiak, iturriak edo dena delakoak izan beharko dituzte inspirazio iturri. Egitasmoan parte hartu gura dutenek Zelaia zentroko harrean edo 946 300 650 telefonon eman beharko dute izena maiatzaren 4tik aurrera. Modu horretan jasoko dituzte oihalak.

Bestela, olana bere kabuz lortu gura duenak datu izan beharko du kontuan: euskarria 1,3 x 1,5 metro zabal izan beharko da eta 4 milimetrotako botoi zulodunak izan beharko ditu ertzetan. Lanak entregatzeko epea ekainaren 19an itxiko da.

Lehiaketan lau sari banatuko dituzte. 500 eurokoa, 300ekoa, 150ekoa eta publikoaren saria. Jasotako artelanak herriko plazan ipiniko dituzte ikusgai uztaile osoan zehar. Bestalde, Zornoza elkarteak kideek esan dute ahalgin berezia egingo dutela umeengana ailegatzeko. 12 urtetik beherakoak *Non ete dago Zintzilik?* jokoagaz lehiatu ahal izango dira uztailearen 6tik 17ra.

## Andoni Ibarra, hirugarren patinaje artistikoko Munduko Kopan

**J.D. / E.H.** ZORNOTZA  
Andoni Ibarra zornotzarrak mugarririk esanguratsu bat ipini du jada oparora zuen ibilbide profesionalan: hirugarren postua lortu du gorpil gaineko patinaje artistikoko Munduko Kopan, eta brontzezko domina ekarri du Buenos Aireseko txapelketatik (Argentina) jaioterrira. Ibarra zazpi urte hasi zen patinaje artistikoan, eta etengabeko garapena izan du ordutik. Sei bider izan da Euskadiko txapeliduna eta emaitza aipagarriak pilatu ditu nazioartean: 2024an brontzea Europako Kopan (Zürichen, Suitza), 2025ean 6. postua Munduko Kopan (Triesten, Italia) eta urte berean urrea Europako

Kopan (Matosinhos, Portugalen). Zornotzarra Bilboko Irrisbizi klubean dabil.



Ibarra, brontzezko dominagaz.

## Zornotzako Karmen kaleko lanak fase berri batean sartu dira

**Ekaitz Herrera** ZORNOTZA  
Zornotzako Udalak fase berri bat hasi du Karmen kalea eraberritzeko lanetan. Atal berri horrek 720.000 euroko inbertsioa izango du eta lanak kaleko beste eremu batera zabalduko dituzte: Konbenio eta Larrabide kaleen bidegurutzera, hain zuzen ere. Udalak azaldu duenez, espaloiak zabaltzea, ibil-

gailuentzako goraguneak atontzea eta berdegune gehiago sortzea izango da lanen oinarria. Era berean, hiri-altzariak ipiniko dituzte, eta azpiegitura-sareak berrituko, hala nola euri-urentzako eta ur beltzak husteko sistemak. Lan horiek guztiak, aurreikuspenen arabera, sei hilabeteko iraupena izango dute. Ainhoa Salterain

alkateak proiektuaren garrantzia azpimarratu du: "Proiektu hau gure bizilagunen ongizatea, bizi kalitatea eta ingurumenaren errespetua lehenesten dituen hirigune dinamikoago bat sortzeko asmoz diseinatu dugu". Era berean, proiektuak "bizilagunen ongizatea hobetzeko" balioko duela iragarri du. Halaber, Zornotzako Udalak jakinarazi du proiekturako kreditu-aldaketa azken osoko bilkuran onartu zutela, eta EH Bilduk eta Podemosek horren aurka egin zutela.

### PUBLIERREPORTAJEA



**MALEN AZKUNA** | ZORNOTZA | myGADE (4. IKASTURTEA)

**Zein da zure adina, zein herritakoa zara, zein gradutan eta zein kurtsoan zaude?**

21 urte ditut, Zornotzako (Amorebieta-Etxano) naiz eta myGADE gradu 4. kurtsoan nago gaur egun.

**Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak (batxi)?**

**Baduzu hobby edo zaletasunik?**  
myGADE ikasi aurretik zientziatiko batxilergoa egin nuen, biologia eta kimika ardatz nagusiz hartuta, nahiz eta ekonomia ere landu nuen. Nire zaletasunen artean dantza modernoa eta euskal dantzak, korrika egitea, mendira joatea eta musika entzutea daude.

**Zergatik aukeratu zenuen myGADE gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Ekonomiarekiko nuen interesagatik eta enpresa munduak erakartzen ninduelako aukeratu nuen myGADE. Gainera, gradu honek ikuspegi praktikoa eta etorkizunera begirakoa eskaintzen du. Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen, ikasleari konpetentzia profesionalak garatzeko aukera ematen diolako eta lehen mailatik DUAL ereduaren trebatzeko aukera dagoelako.

**Nola baloratuko zenuke orain arte unibertsitatean bizitako esperientzia?**

Oso esperientzia positiboa izan da orain artekoa. Bereziki baloratzen ditut DUAL esperientzia, ikasgaietan ematen den praktikasuna, irakasleen gertutasu-



na eta garapen pertsonal zein profesionalari ematen zaion garrantzia.

**Nola definituko zenuke Enpresa-gintza Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Ikasteko metodologia ez da tradizionala, talde-lanean eta erronka praktikoetan oinarritzen da. Gainera, irakasle bat baino gehiago egoten da ikasgaietan eta ikuspegi desberdinak lantzen dira. Honek etorkizuneko lanerako prestakuntza oso egokia eskaintzen du.

**Esperientzia internazionalen inguruan: izan duzu edo izateko asmoa duzu atzerriko esperientziarik? Zer ekarpen egiten dizu edo egingo lizuke?**

Une honetan Erasmus egonaldian nago Boise-n. Esperientzia honek nire ikuspegi zabaltzen laguntzen dit, ingelesa hobetzeko aukera ematen dit eta AEBetako negozio-ingurunea ezagutzeko balio dit. Gainera, kultura desberdinetako pertsonekin harremanak izatea oso aberasgarria da. Etorkizunean BEINT programan parte hartu nahiko nuke.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, eredu dualean. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu? Nolako da zure egunerokoa enpresan?**

BIHARS.COOP-en ari naiz lanean lehen mailatik. Kooperatiba txikia denez, askotariko lanak egiten ditut: marketin digitala (sare sozialak eta Google Ads), bezeroen arreta, fakturazioa eta barne-prozesuen antolaketa. Egunerokoa dinamikoa da eta taldearekin harreman estua dut.

**Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak? Nola uztartzen dituzu unibertsitatea eta enpresako lana? Zer ikaskuntza nabarmenduko zenuke?**

Eredu dualak ikasitakoa praktikara eramateko aukera ematen dit. BIHAR-en bizi izan dudana esperientziari esker, aldaketetara egokitze gaitasuna garatu dut eta harreman profesionalak, lidergoa eta talde-lana lantzeko aukera izan dut. Horrek nire moldagarritasuna eta heldutasun profesionala indartu ditu, baita autonomia eta arazoak konpontzeko gaitasuna ere.

**Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?**

Oraindik ez dut guztiz argi zein bide hartuko dudana. Aukeren artean master bat egitea (Berrikuntza eta Internazionalizazio arloan) edo lanean jarraitzea esperientzia gehiago lortzeko daude. Etorkizunean, BEINT programan sartzea gustatuko litzaidake.

# Okm batzen gaituen distantzia

## ANBOTOKIDE MAIATZEKO ZOZKETAK



**Xiberu tabernan**  
(Zornotza)  
bi gosari bikoitiz.



**Areatza bainuetxea.**  
Gau bat logela  
bikoitza, gosaria  
+ zirkuitu termala  
2 lagunentzat.



**Aukan izozkiak.**  
6 izozki edo etxera  
eramateko 1/2  
litroko 2 tarrina.  
Durango.



**BASA take away**  
jaketxeko KMO  
haragidun  
eta ogi artisaudun  
hanburgesa eta bi  
esaltsadun patata  
errazioa opari.  
Bariku eta zapatu  
gauetan gozatzeko.



**Uxarto Sagardotegian**  
birentzako otordua.



**Arriola Antzokia**  
Antzerkia euskaraz  
Txalo "Escape room"  
Maiatzak 8.

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE  
ETA PARTE HARTU  
GURE ZOZKETETAN!



## Maiztegi eskolan izandako "bandalismo ekintzak" salatu dituzte

M.Z./ A.B. IURRETA

Iurretako Maiztegi herri eskolako zuzendaritzak joan zen asteburuan ikastetxean izandako "sabotaje eta bandalismo ekintzak" salatu ditu. "Ortu inguruko itxitura apurtu, hesiak txikitu eta eskolaz kanpoko esparrura bota dituzte. Ikastetxeko kanpo espazio material ugari kaltetu dute. Gainera, komunitateak asteotan ilusioz erein eta landatutako fruituak atera dituzte", esan dute.

Gertaerek "amorruta eta min" handia eragin dute Guraso Elkartean ere. Kalteek "denen lanari eta ilusioari" eragiten diela esan dute. "Ortua herriko umeekin egindako proiektua da, esfortzu handiagaz sortua, bihotzez eraikia eta egina", gaineratu dute. Eskolako zuzendaritzak eta Guraso Elkarrekin gertaerak salatu dituzte eta espazio publikoak zaindu eta errespetatzea eskatu. Udalak "gaitzespen sutsua" adierazi du ohar batean. "Ekintza horiek ez dira baldarkeria

hutsak, gazteen artean errespetu- eta iraunkortasun-balioak bultzatzea helburu duen hezkuntza proiektu baten aurkako eraso zuzena baino", argitu dute. Hori dela eta, "beharrezko baliabideak" udaltzainen eskura ipini dituzte, "kalteen erantzuleak identifikatzeko". Udalak elkartasuna eta laguntza eskaini dizkio eskola komunitateari.



Itxitura apurtuta. MAIZTEGI ESKOLA

## Oskar Koka izango da Iurretako EAJren alkategaia



Koka udaletxearen aurrean. EAJ

A.B. IURRETA

Azken hiru legegintzaldietan zinegotzi eta 2024ko martxotik alkate izan den Oskar Koka izango da Iurretako EAJren alkategaia datorren urteko udal hauteskundeetan. EAJk Kokaren ibilbidea goratu du, eta "herriaren ezagutza eta udalaren eguneroko kudeaketan duen inplikazioa" azpimarratu. Gehiago osoz aukeratu dute. Azaldu duenez, "Iurretako irrisgarriagoa, dinamikoagoa eta guztiontzako aukerak dituen eraikitzen" jarraitu gura du. Etapa berriari "ilusioz eta arduz" ekingo diola esan du.

## 'Lutxi eta zuhaitza' Luzia Urigoitiaren heriotzari buruzko filma aurkeztu dute

A.B. OTXANDIO

'Lutxi eta zuhaitza' film dokumentala estrenaitu dute asteon Giza Eskubideen Donostiako Zinemaldian. Lander Garro zinemagile gipuzkoarrak zuzendu du filma eta Otxandioko Luzia Urigoitia ETako kidearen heriotza du ardatz. Otxandioko Aurrera Begira elkarteak bultzatutako ekimena izan da.

Luzia Urigoitia 'Lutxi' 1987an hil zuten, 28 urte zituela, Guardia Zibilak ETaren Donostia komandoa desegiteko antolatutako operazioan. Gazte otxandiarra Paisaiako Trintxerpe auzoko (Gipuzkoa) etxebizitza batean zegoen, beste kide batzuekin. Narrazioa Urigoitiaren familiaren akusazio partikularraren inguruan antolatuta dago nagusiki.



'Lutxi eta zuhaitza' dokumentaleko irudi bat. AUERRERA BEGIRA

## Garaiko Nagusien Elkartegaz Ordiziako merkatura irteera



Ordiziako merkatura. ORDIZIAKO UDALA

J.G. GARAI

Baserriko produktuen ekoizpen oparora izaten da Ordizia inguruan. Gainera, bere merkatu ezagunak bertako jeneroa ezagutu eta erosteko aukera bikaina eskaintzen du. Horren jakitun, Garaiko Nagusien elkarteak irteera antolatu du maiatzaren 6rako. Bisitan merkatua eta herriko alde zaharra ezagutuko dituzte. Arratsaldian Antioko ermita ezagutuko dute Zumarragan. Bidaia honetako autobusa 08:30ean abiatuko da Garaiko plazatik. Bazkideentzat 30 euroko prezioa ipini dute, eta bazkide ez direnentzat 40 eurokoa.

## Berbalagunen Olazar dorretxearen aztarnak ezagutuko dituzte

**Jone Guenetxea** ZALDIBAR

Berbalagun egitasmoaren barruan bisita gidatu interesgarria antolatuko dute Zaldibarren gaurko, apirilak 30, 17:00etan. Olazar dorretxearen aztarnak ezagutuko dituzte, Aritz Aranbururen eskutik.

**Bainuetxe izaera**

Jatorrizko izena Zaldua bada

ere, udalak Zaldibar izena ipini zion 1923an, bainuetxearen eraginez. XIX. mendearren erdian, trenean bidaiari asko etortzen zen herrira, atsedeen hartzera batzuk eta osasunerako ur tratamenduak hartzera beste batzuk. Bisita gidatu honetan, bainuetxe-ospital ingurua eta bertako bitxikeriak ezagutuko dituzte.



Olazar Dorretxea. ZALDIBARKO UDALA

## 65 urtetik gorako atxondarrentzat podologia zerbitzua

**M.Z. ATXONDO**

Atxondoko Udalak podologia zerbitzua eskainiko du 65 urtetik gorako herritarrentzat. Udalak jakinarazi duenez, zerbitzu hau ondoko herri batean emango dute, Abadiñon hain zuzen ere. Aurrez hitzordua hartzea ezinbestekoa izango da, 623 101 642 telefono zenbakira deituta.

## Castet Egunean gerrako umeak gogoan



CASTET

**E.H. ZALDIBAR**

Zaldibarko Castet elkarteko hainbat kide Santamañazarrera igo zen joan zen domekan, 1937ko apirilaren 25ean han borrokatu ziren gudariak eta milizianoak gogoratzeko. Castet gerra sasoiaren eskualdetik alde egin behar izan zuten umei buruzko ikerketa bultzatzen dabil, eskualdeko talde memorialistekin eta Gerediagagaz elkarlanean. "Hamabost izan ziren ume zaldibartar exiliatuak", esan zuten.

## Zapatuan XXVII. Kaleko Pintura Lehiaketa egingo dute Berrizen

**M.Z. BERRIZ**

Beste urte batez, margolariz eta kolorez beteko dira Berrizko kaleak. Zapatuan, maiatzak 2, XXVII. Kaleko Pintura Lehiaketa egingo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lehiaketan 16 urtetik gorako pertsona guztiek parte hartu dezakete eta gaia librea izango da. Hori bai, lanak aire zabalean egingo dira egunean bertan, eta Berrizko irudietan oinarritu beharko dira.

Horrez gainera, jakinarazi dute euskarriak Berrizko Kultur Etxean zigilatu beharko direla, 8:30etik 9:30era bitartean, eta hauen aurkezpena 13:30etik 14:00ak bitartean izango dela,

Berriz Jauregi lorategian. Aurkezten diren lan horiek hasieran sinatu barik egon beharko direla azpimarratu dute antolatzaileek, eta behin sari bana-keta egiten denean orduan sinatu beharko direla.

**Lau sari**

Pintura lehiaketako sariei dagokionez, XXVII. Kaleko Pintura Lehiaketak lau sari izango ditu. Lehenengo saria 700 eurokoa izango da, bigarrena 600 eurokoa eta hirugarrena 500 eurokoa. Bestalde, lehenengo hiru sailkatuen artean berriztarrik ez badago, lehenengo herritarrari 400 euroko saria emango diote.

**CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL**

# ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

**Aurrematrikula**  
maiatzaren 4tik 22ra

**Matrikula**  
uztailaren 13tik aurrera

**Ate irekiak**  
maiatzaren 7an

**ESKAINITZA OSOA**

**GOI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Metal Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrialia
- Garraioa eta Logistika

**ERDI-MAILAKO ZIKLOAK**

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

**ZIURTAGIRI PROFESIONALAK (C graduak)**

- Hodien, eraikuntzen eta metal-arotzeriaren fabrikazioa (591 ordu) Arratsoldez
- Sistema mekanikoen mantentzea (555 ordu)

**ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA**

Langabeei eta landunei zuzendutako ikastaroak

☎ 946 730 251 ✉ info@pzornotzalh.eus 🌐 www.pzornotzalh.eus

## Giro paregabea Boroako jaietan

M.Z. ZORNOTZA

Asteburuan jaiak ospatu dituzte Zornotzako Boroa auzoan. Eguraldi ona lagun, giro paregabea izan zuten eta jendetza batu zen bertan.

Domekan, esaterako, abelburu eta nekazaritza produktuen azoka egin zuten, baita ardi mozte erakustaldia eta herri kirolen saioa ere.



Boroako azokako argazkia.

### DURANGALDEA ASTEON

## Domekan Santi Kurutz jaiak ospatuko dituzte Iurretako Goiuria auzoan

**IURRETA** Maiatzaren 3an Santi Kurutz jaiak ospatuko dituzte Iurretako Goiuria auzoan. 12:00etan Iurretako dantzarien saioa egongo da, eta, ondoren, luntxa egongo da bertaratzen direnentzat. Jarraian, triki-bertsu-kantu poteoa egingo dute.

## Kirolean haurren babesa indartzeko jardunaldia, gaur arratsaldean, Durangon

**DURANGO** Durangoko Udalak, Durango Babesgune programaren barruan, sentsibilizazio jardunaldi bat antolatu du kirol arloan haur eta nerabeentzako ingurune seguruak bultzatzeko asmoz. Saioa gaur izango da, apirilak 30, 18:30ean, San Agustin Kultur Gunean. Sarrera librekoa izango da.

## Musika elektronikoaz gozatzeko aukera egongo da maiatzaren 2an Zornotzan

**ZORNOTZA** Infinity Clubbing kultur kolektiboaren bitartez, musika elektronikoaz gozatzeko aukera egongo da Zornotzan maiatzaren 2an. Ekitaldia Zelaietako kontzertu gelan izango da, 18:00etan, eta 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Jarduera doakoa da.

### POLITIKAN

## Kultura elementu eraldatzailea



PAULE SANCHEZ  
EAJ-PNV

Durangok euskal kulturaren mapan izen propioa dauka eta gure erronka haratago joatea da: Durango kulturak benetako babesa, bultzada eta proiektzioa aurkitzen dituen herria izaten jarraitzea nahi dugu.

Durangoko EAJtik udal instalazioen erabilera estrategikoa-rekin, diziplina artistiko bakoitzari garapenerako espazio propioa eman nahi diogu; eskaintza kulturalak dibertsifikatzen jarraitu eta antzerkia, zinema, musika, pintura, eskultura, dantza, argazkilaritza eta komikiak agendatu. Baina betiere interkonexio ardatz izanik eta diziplinen arteko loturak sustatuz, proiektu hibridoak, lankidetzak eta adierazpen artistiko berrien sorkuntza ahalbidetu.

Durangok dagoeneko erakutsi du punta-puntako programazio kultural, anitza eta erakargarria sortzeko duen gaitasuna; gurean, kultura urte osoko kontua da.

Durangoko jeltzaleok egitarau orekatua eskaintzen jarraitzeko lanketekin segitzen dugu, denontzat eskuragarri eta irisgarria den agenda lantzen, inpaktu handiko proposamenek eta ekoizpen eta egitasmo txikiagoek ere lekua dutela bermatzen.

Kultura ez da pribilegio bat, elementu eraldatzailea da; hezkuntza da, balioen transmisioa da, gizarte-kohesioa da; kasu askotan, bigarren aukera bat da; herrigintza da eta Durangoko EAJ-PNV honetan ere bada.



## Jai giroa izan da nagusi asteburuan Iurretako Oromiño auzoko sanmarkoetan

**IURRETA** Iurretako Oromiño auzoan jai giroa izan da nagusi asteburuan. Bertan, San Marko jaiak egitarau zabalagaz ospatu dituzte. Besteak beste, artisautza azoka, Maiztegi herri eskolako dantzarien eta Mikel Deuna dantza taldearen emanaldia eta kantu-dantza bazkaria egon ziren.

### GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - Iurreta  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

**Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).**

## anboto

### ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902



### Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

### Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

### Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

### Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

### Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Maialen Zuazubiskar

Gallastegi, Aritz Maldonado

Zabala.

### Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

### Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

### Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



### LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko  
Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kultura Sailak diruz lagundua



# BURUARI KLIK!

## DOMINOA



Marraztu itzazu lauki zurietan falta diren irudiak,  
dominoak zentzua izan dezan



### KIMU KUKUKA



## MATEMATIKAK



# LERROEI JARRAITU

Lerroen gainetik marraztu





# Zenbat ezagutze ~~an~~ duzu Durangaldean?

Bazkari edo afari bat jokoan!



Hilero herri bakoitzeko galdera sorta bat  
Edonork parte har dezake!

[Laster informazio gehiago](#)

SARTU, JOKATU ETA IRABAZI OTORDU BAT!

 **anboto**

## LITERATURA

## Leire Mendiburuk 'Ekologia pirata baten alde' saiakera euskarara ekarri du

Liburuak ekologismoa Europako hiri-auzo herrikoietara zelan zabaldu planteatzen du

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Fatima Ouassak aktibista frantziarraren proposamen ekologikak euskarazko ahotsa izango du aurrerantzean, Leire Mendibururi eskerrak. Itzultzaile durangarrak *Ekologia pirata baten alde, eta aske izango gara* saiakera itzuli berri du Katakarak argitaletxeagaz, Amaia Astobizak, Ainhoa Iparragirrek eta Idoia Ormaetxeak gainbegiratuta. Liburuak proposamen ekologista modu erradikalean planteatzen du, eta metropoli-aldirietako biztanleak aintzat hartuta eginda dago. "Izan ere, klima-hondamendia gehien sufritzen dabilzanak hiri-auzo herrikoietako biztanleak direla konstatatzen du idazleak, migranteak gehienbat. Ouassak bera Parisko aldirietan bizi da, hain zuzen ere, eta errealtate horren eta oro har munduaren deskribapen zuri-beltza egiten du; ondoren, irtenbide esperantzagarriak proposatzen ditu", azaldu du Mendiburuk. Itzultzailearen berbetan, idazleak auzo horietako "itolarrria" deskribatzen du, "etxeak, auzoak, asfaltoa, airea, beroa, hotza, lan baldintzak eta poliziaren presentzia" direlarik ardatz. "Jendea



Leire Mendiburu liburu argitaratu berria eskuetan, Hitz liburu dendan.

bizi baldintza kaskarretan bizi da auzo horietan, eta modu latzagoan bizi ditu klima hondamendiaren ondorioak; batez ere, auzo horietako haurrek. Horrenbestez, zurien eta aberatsen neurriera egindako ekologismoa planteatu beharrean, idazleak hiri-auzo herrikoietako biztanleak euren kabuz antolatzea proposatzen du", argitu du itzultzaileak. Halaber, uste du idazlearen tesia Frantziako hiriguneei begirakoa izan arren, "begirada kritikoagaz" irakurrita, hango egoerak estrapolagarriak izan daitezkeela

Euskal Herrira, betiere "eskala txikiagoan".

Mendiburuk joan zen astean aurkeztu zuen *Ekologia pirata baten alde, eta aske izango gara*, Erika Lagoma lagun, Durango Hitz liburu dendan. Liburu trilogia baten bigarren atala da eta *La puissance de mères* (*Amen indarra*) arrakastatsua du aurrekari. Argitalpen horrek 2020an ikusi zuen argia, hiri-auzo herrikoietako gurasoen sindikatua (*Le Front des Mères, Amen Frontea*) 2016an sortu eta lau urtera.

## DANTZA

## Ezpatadantzari Eguna Zornotzan



IRATI BOTELLERO

**J.D. ZORNOTZA**

Joan zen zapatuan, Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatu zuten Zornotzan lehenengoz. Giro paregabekoa lagun, eskualdeko hamar talde batu ziren bertan. Dantza talde hauek parte hartu zuten: Zornotzako Udabarrik, Berrizko San Lorentzok eta Iremiñek, Durangoko Kriskitinek eta Txoritxu Alaik, Garaiko dantza taldeak, Iurretako dantzariak, Mallabiko Gazte Alaik, Mañariko Andra Marik eta Otxandioko Urdurik.

## GAI LIBREAN



**AINHOA ZABARTE NARBAIZA** BEHARGINA

## Beix

Hitza Interneten bilatuta hau dio azalpenak: "Egoera lasaigarri eta eroso batekin lotzen da, eta simpletasuna, berotasuna eta lasaitasuna ekartzen ditu gogora". Aspalitik datorren joera da mundu beixaren, eta horren guztiaren isla da, Pantonek 2026rako kolorea *Cloud Dancer -Zuri beroa-* izendatzea. Non daude koloretako eraikinak? Non sukalde laranja eta berdeak? Non daude toke pertsonal eta ikusgarriak zituzten tabernak? Jaie-tarako sortuak ez diren kamiseta koloretsuak? Ezpain gorri eta kolorete deigarriak?

Haurrentzako arropa erosteko orduan ere, denda batean edo bestean -fisikoa zein online- sartu, eta beixa da nagusi: kolore apalak. Are nabarmenago egiten zait jostailuak ere horrelakoak izatea; kolore bako bola-igerilekuak, adibidez. Kolorerik gabeko jolasak. Instagrameko ama influenzerrek erakusten dute hori: etxe zuri garbiak,

**"Ematen du egun kolorea pertsona arraroentzako, zoroentzako bihurtu dela; agian, berreskuratu beharko genituzke geureak"**

guztiz jasotakoak eta desordenarik gabekoak; zikintzen ez diren haurrak eta jostailu kamuflatuak. Ni neu ere erori. Badut asko beixetik, pareta zuri eta beixak, eta egurra eta natura objektuekin apaindutako gelak. Erretiratu nituen ezpainetako gorriak, eta kolore asko janztekoa izan ez banaiz ere, armairua ireki eta dexente epeldu da urterik urte kolore-paleta. Gero eta muturrekoagoa den gizartean, itzali dira koloreak; klariona, harea, perla, oloa eta krema dira nagusi. Ere mu neutra-la, lasaia, erdikoa, azkurarik eragiten ez duena; ez deitu atentzioa, ez nabarmendu; ez ezkerria, ez eskuina. Koloreak baino ez direla badirudi ere; horiek izan dira geure aldar-tearen isla, geure izaera erakusten dutenak, geure aldarrikapenak eta geure izaera kolektiboa. Ematen du egun kolorea pertsona arraroentzako, zoroentzako bihurtu dela; agian, berreskuratu beharko genituzke geureak.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO.  
946 232 523 / [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org)

## EGUENA 30

• **ABADIÑO 'Felix Iturriaga'**

Abadiñoako txirindulariari buruzko erakusketa. Errota kultur etxean, maiatzaren 10era bitartean.

• **ABADIÑO Aurkezpena**

Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Tokapeten aurkezpena. Ondoren, kontzertu akustikoa eta parripotea. Abadiñoako Gaztetxean, 18:00etan.

• **BERRIZ 'Gu ere bagara!'**

Getxoko LGTBIQ+ adineko pertsonen bizipenak, errealitateak eta ahotsak biltzen dituen erakusketa, Ines Bermejo artistaren eta Julen Nafarrete kazetariaren eskutik. Berrizko Kultur Etxean, maiatzaren 19ra arte.

• **DURANGO Erakusketa**

Durangaldeko Artisten elkarteko kideen lanak. Ezkurdi aretoan, maiatzaren 3ra arte.

• **DURANGO Berbaldia**

'Kirolgune seguruak ume eta nerabeentzat Durangon' Hizlariak: Iñaki Alonso (Kunina Sports & Education), Eukene Arana (Zain), Rocío Ybarra (Aterpe programa. Athletic Klub Fundazioa).

San Agustin kulturgunean, 18:30ean.

• **ZALDIBAR Lehiaketa**

Herriko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Irabazleak 250 euro lortuko ditu, eta 2.ak 150 euro. 100 euroko sari berezia egongo da 14 urtetik beherakoentzat. Oinarriak: [www.zaldibar.eus](http://www.zaldibar.eus). Lanak udaletxean aurkeztu daitezke edo [kultura@zaldibar.eus](mailto:kultura@zaldibar.eus) helbidera bidali, maiatzaren 14ra bitartean.

• **ZORNOTZA 'Ura eta kolorea'**

Ruben Alvarez 'Rubencio'-ren akuarelek osatutako erakusketa. Zornotza Zentroan.

• **ZORNOTZA 'Xerka'**

Sexilioari buruzko argazki erakusketa. Zelaieta zentroan.

## BARIKUA 1

• **DURANGO 'Ezer ez delako amaitzen'**

Antzerki amateur Inxorta 1937 & Loraldia Produkzioak-ek bultzatuta aurkeztutako lana. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.

• **DURANGO Jaiak**

Jaizale elkarteko txistularien kalejira, 10:30ean.

Bizikleta buelta umeentzat, artisautza azoka eta bigarren eskuko azoka, 11:00etan (euririk ez bada).

Kriskitin dantza taldea

12:00etan.

Bertso saioa 13:00etan:

Eneko Abasolo 'Abarkas', Erika Lagoma eta Gorka Lazkano. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga.

Tute txapelketa 16:30ean, Paulinoren omenez.

Txokolatada 17:30ean.

Tor magoa 18:00etan.

Igel txapelketa 19:00etan.

Errota taldea 21:00etan.

Aramotz auzoan.

## ZAPATUA 2

• **BERRIZ XXVII. Kaleko Pintura Lehiaketa**

Lanak aire zabalean egin behar dira, herria bera eta bertako txokoak oinarri legez hartuta; 16 urtetik gorakoek zuzendutako lehiaketa da.

1. saria 700 euro, 2. saria 600 euro eta 3. saria 500 euro. Lehenengo berriztarrak 400 euroko saria lortuko du, lehen hiru sarrituen artean ez badago. Euskarriak zigilatzea 08:30etik 09:30era, Berrizko Kultur Etxean.

Lanak Berrizko Jauregiko Lorategian aurkeztu behar dira, 13:30etik 14:00etara.

• **DURANGO Jaiak**

Ibilgailu klasiko VII. topaketa, 10:30ean.

Umeentzako disko festa, 17:00etan.

Kontzertuak: Julen Burgos, Iker Gomez eta Deriba taldeak, 19:00etan.

Aramotz auzoan.

• **ZORNOTZA Gau elektronikoa**

Jose M Matheo Velez + Gabo Forero B2B Mao Montenegro + Nebreda B2B Kolditto + Maikdark + Asiertech. Zelaietako kontzertu gelan, 18:00etan.

## DOMEKA 3

• **BERRIZ Txori kantarien lehiaketa**

Barakaldoko Txinbo elkarte ornitologikoak antolatutako ekintzan bertan dagoen zale orok parte hartu dezake. Berriz Jauregia lorategian, 09:00etan hasita.

• **IURRETA Santi Kurutz jaiak**

Iurretako dantzarien saioa. Ondoren, luntxa. Jarraian, triki-bertso-kantu-poteoa. Gouiuria auzoan, 12:00etan.

## ASTELEHENA 4

• **DURANGO Berbaldiak**

'Gure seme-alabei euskararekin eta hizkuntza ohiturekin laguntzeko erronka' (euskara ulertzen duten gurasoei zuzenduta) eta 'Disfrutando con los idiomas?' (euskara ulertzen

ez duten gurasoei zuzenduta). Udal euskaltegian, 17:30etik 19:30era.

• **ZORNOTZA 'Zintzilik' Arte Lehiaketa**

Izena emateko epea zabaldu dute. Zelaieta Zentroko harreraren egin behar da izen ematea edo 94 630 06 50 telefono zenbakira deituta. Ekainaren 19ra bitartean aurkeztu daitezke lanak.

## EGUAZTENA 6

• **BERRIZ Sendabelar ibilbidea**

Bertako floraren propietate sendagarriak ezagutzeko eta ingurune hurbilean duen balioa ulertzeko ibilbidea, Mentxu Amunategik gidatuta. Nagusien Etxetik abiatuta, 17:30ean.

## BARIKUA 8

• **IURRETA 'Bizia. Lehoi erregea'**

Ikuskizuna Navarra Produccionesen eskutik. Ibarretxe kultur etxean, 18:00etan.

• **ELORRIO 'Escape Room'**

Txalo Produkzioak konpainiak aurkeztutako antzezlan. Arriola antzokian, 20:00etan.

• **DURANGO 'J.L. Martinez de Antoñanari omenaldia'**

Erakusketa. Ezkurdi aretoan, maiatzaren 17ra bitartean.

## ZINEMA

## BERRIZ

KULTUR ETXEA

**Super Mario Galaxy**  
Domeka 3: 17:00.

## DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

**El diablo viste de Prada 2**

Barikua 1 : 18:00, 20:30.  
Zapata 2: 17:00, 19:00, 21:30.

Domeka 3: 17:00, 19:30.

Astelehena 4: 17:45, 20:15.

Martitzena 5: 17:45, 20:15.

Eguaztena 6: 19:00.

**La plaga**

Barikua 1: 18:00, 20:30.

Zapata 2: 19:30, 21:30.

Domeka 3: 19:30.

Astelehena 4: 18:00, 20:15.

Martitzena 5: 18:00, 20:15.

Eguaztena 6: 19:00.

**Los justos**

Barikua 1: 20:30.

Zapata 2: 19:30.

Domeka 3: 19:30.

Astelehena 4: 18:00, 20:15.

Martitzena 5: 18:00, 20:15.

Eguaztena 6: 19:00.

**¿Cómo hemos llegado a esto?**

Barikua 1: 18:00.

Zapata 2: 17:45, 21:30.

Domeka 3: 17:45.

Astelehena 4: 20:15.

Martitzena 5: 20:15.

Eguaztena 6: 19:00.

**Maracuda**

Zapata 2: 17:00.

Domeka 3: 17:00.

## ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

**Calle Málaga**

Zapata 2: 20:00.

Domeka 3: 20:00.

Astelehena 4: 20:00.

## ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

**Incontrolable**

Barikua 1: 20:00.

Zapata 2: 20:00.

Domeka 3: 20:00.

Astelehena 4: 20:15.


**Super Mario Galaxy**

Zapata 2: 17:00.

Domeka 3: 17:00.

**La Grazia**

Eguena 7: 20:15.



## SAN PRUDENTZIO JAI EGITARAUA

## APIRILAK 30

- **16:45 Txiki merienda** merkatu plazan. Txartelak salgai Errota Kultur Etxean apirilaren 20tik aurrera, gehienez 5 txartel pertsonako. Txartela: 1euro
- **17:15 Disko-dantza** merkatu plazan.
- **19:00 Txupinazoa** txosna gunean **Hamabi Harri taldearen eskutik. Ondoren, parrillada.**
- **19:30 Kontzertua** Traña plazan: *Haize-arrosa*
- **20:45 Bingo solidarioa** Traña plazan.

• **22:00 DJ JKRmona & Berros** Traña plazan.

• **00:00 Bingo solidarioa** Traña plazan. Ondoren, DJ JKRmona & Berros. Bingo solidarioan jasotako dirua Atxondo Herrera Herria elkartearentzat izango da.

## MAIATZAK 1

MOZORRO EGUNA  
MUNDUKO MITOLOGIARI

• **12:30 Kalejira Ad Libitum fanfarreak** alaituta.

• **14:30 Herri bazkaria** frontoian.

Ondoren, kuadrillen arteko

jolasak, Txosna Batzordeak antolatuta.

• **19:00 Mozorro kalejira**

Trañabarren kalean.

• **22:00 Kontzertua** Traña plazan:

• *Ainke*

• *Impuesto Revolucionario*

(Tributo a Eskorbuto)

• *Jose txu Piperrak*

## MAIATZAK 2

• **08:00 Mahai eta aukien banaketa** merkatu plazan.

• **Haurrentzako tailer**

**multisentsoriala frontoian:**

**Baserria.** Lehenengo saioa (11:00):

18 hilabete - 2 urte. Bigarren

saioa (12:30) 3 - 6 urte. Edukiera

mugatua. Gonbiteak eskuragarri

Errota Kultur Etxean apirilaren 13tik

aurrera.

• **11:30 Paella txapelketarako izen ematea,** merkatu plazan.

• **12:00 Trikitilariak** merkatu plazan.

• **16:00 Ugasio txapelketa** merkatu plazan.

• **17:30 Tortilla txapelketarako izen ematea,** merkatu plazan.

• **21:00 Mahaiak eta aukiak jasotzea** merkatu plazan.

• **22:30 Jaialdia** Trañabarren

etorbidean:

• *Orquesta Génesis*

• **22:30 Kontzertua** Traña plazan:

• *Malakias*

## MAIATZAK 3

• **GOIZEAN, Geu Be taldeak Eusko Labeleko txahal bat erreko du**

eskolako aterpean.

• **11:00 Artisautza azoka** eskolako aterpean.

• **11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.**

• **11:00-13:30 Umeentzako jolasak**

Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

• **16:00-19:30 Umeentzako jolasak**

Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

• **17:00 Mus txapelketa** La Mari

tabernan.



Txaber Zabala, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuko sarreran.

PILOTA

## "Durangoko pilota klubeko zuzendaritzan jarraituta loturari eutsiko diot"

TXABER ZABALA BILBAO PILOTA PRO LIGAN LOGISTIKA ARDURADUNA

20 urtez Durangoko Pelota Eskolako arduradun izan eta gero, Zabalak Pilota Pro Ligako logistika ardurak hartu ditu. "Gogotsu" ekin dio etapa berriari

JOSEBA DERTEANO DURANGO

Txaber Zabala Bilbao (Lezama, Zornotzan bizi da, 1979) erreferente bat da Durangaldeko pilota munduan. Durangoko Pilota Eskolaren arduraduna izan da hamarkada bitan, eta eskolak izan duen hazkundera ez dago ulertzerik bera barik. Orain, ostera, etapa berri bati ekin dio. Eskolatik pilota profesionalerako saltoa eman du: Pilota Pro Ligan (ASPE eta Baiko enpresak osaturiko egitura) logistika arduradun hasi da lanean.

**Zerk erakartzen zaitu gehien abentura berri honetatik?**

Pilotaren munduak berak erakartzen nau gehien, lan konkretu batek baino gehiago. Mundu honetan lanean egotea beti da pozgarria niretzat. 27 urte eman ditut pilota eskoletan, eta aurrerantzean pilotari profesiona-

lek in arituko naiz. Etapa berri bat da eta ilusioz ekin diot.

**Zeintzuk izango dira zure ardurak?**

Pilota jaialdien ardura logistikoa eramango dut: jaialdietan behar diren laguntzaileak, segurtasuna, ambulantiak eta abar kudeatzea, edo frontoiak alokatzeko behar diren eskakizunak betetzea, dela aseguruia, dela protokoloa... Gero, frontoirik frontoi ibiltzen naiz astero, dena behar den moduan dagoela segurtatzeko. Orain aste bi Labriten egon nintzen, eta joan zen asteburuan Bilbon, Durangon eta Arrasaten.

**Pilotaren munduan duzun esperientzia zabalak balio dizu eginkizun berrirako?**

Hasi aurretik, nahiko kontrolatuta izango nuela uste nuen, baina bai zera! Baleki jendeak jaialdi baten antzean dagoen lan guztia! Gainera, frontoi baikoitzak bere berezitasunak ditu.

Ikasten nabil oraindino. Hau beste mundu bat da.

**Zer da gaxena zure lanetik?**

Azken urteetan frontoira joaten den jende motaren profila aldatu egin da. Jende gazte gehiago joaten da eta hori positiboa da. Gazteak behar ditugu eta frontoira zenbat eta gehiago joan, orduan eta hobeto. Jai giroa sortzen dute pilotalekuan. Despedidak ere egoten dira. Zer gertatzen da? Ba, gaztea horixe dela, gaztea, eta kontrol bat eraman behar da festa giro horrek okerreko bidea hartu ez dezan, partiduak beste giro batez, lasaiago, ikustera joaten den publiko mota bat ere badagoelako.

**Zelan lortzen da hori?**

Oso gatxa da. Normalean kua-drillak izaten dira eta kuadrilla guztietan izaten da giroa nahasten duen baten bat. Horrelakoe-tan, ulertarazi behar zaio pasa-

tzen dabilela, bere erruagaitik denak kanporatuko dituztela... laioa izan behar da hori jakinarazteko ere.

**Durangoko Pelota Eskolako juntan jarraituko duzu, baina arduradun lanak utzita. Pena ematen dizu?**

Pena handia ematen dit umeak eta pilotariak uzteak, baina uste dut egunero kantxan dagoenak asteburuetan ere eurekin egon behar duela, botilero lanetan edo partiduei jarraitzen. Astean zehar beharbada izango nuke astia eurekin egoteko, baina asteburuko lana ezin dut bete. Ezinezkoa zait.

**Dena ez da lana bizitzan.**

Beti esan dut hau bizitzeko modu bat dela, lana baino gehiago. Hemen ez dago erlojurik, lana behar den moduan egin gura bada; ez dago sarrera-irteera kontrolik. Badakizu asteburuetan partiduak edo txapelketak daudela, astean zehar umeak entrenatu behar direla, eta udan ezin direla mutikoak hile osoan egon pilota ukitu barik. Gauza onak ere baditu, jakina, lan gutxiagoko momentuak ere badaude. Ni neu oso pozik aritu naiz.

**Zeren falta igarriko duzu gehien?**

Umeekin egotea. Harreman hori, dudarik barik! Pilota eskolan bost urte gazte hartu ditudan zenbait gazte oraindino ere jarraitzen dute jokatzeko, 23 urte gaz. Batzuetan pentsatzen duzu: "Hainbeste lan, hainbeste asteburu, goiz, arratsalde... merezi ote du?". Baina umeak pozik dabilzala ikusten duzunean, ba jakina merezi duela. Eta gero hemen dagoen giroa pilotarien eta gurasoen euren artean, juntan bertan... Horren falta igarriko dut, bai. Lagun asko egin dut eta hori ez da erraza; eta gutxiago lanean.

**Egon da momentu bat eskolako pilotariekin batu eta esan zeniena: "banoa"?**

Bai, momentu hori egon da eta ez da izan une konkretu bat denak batzar berean batuta egindakoa. Ez naiz gauza hori egiteko, negarrez hasiko nintzelako. Apurka esaten joan naiz, orain hauei eta gero besteei. Batez ere pentsatu ez dezaten betiko joango naizela. Pilota klubeko zuzendaritzan jarraituta loturari eutsiko diot.

**Zerk sentiarazten zaitu harroen pilota eskolan lortutakotik?**

Orain dela hogeitun urte hona ailegatu nintzenean, pilota eskola hemezortzi-hogei umegaz hartu nuen. Gaur egun ia ehun ditugu; 96 ume, hain zuzen ere. Historikoki, Durangon erreminta-jo-

koek, palak eta zestak, indar handiagoa izan dute esku pilotak baino, eta nire kargua pilota bultzatzeko eta Durangaldean hedatzeko sortu zen. Nire ustez, bete dugu helburua: gaur egun, ume kopuruari begiratuta, Bizkaiko bigarren pilota eskolarik handiena garea esango nuke, Sopelakoaren atzetik.

**Ander Gutierrezek hartu du zure lekukoa. Eskola esku onetan utzi duzu?**

Dudarik barik. Ander betidanik egon da lotuta pilota eskolari. Bera izango da arduraduna, nik egiten nuen lana egingo duena. Oso ondo egingo duela uste dut. Astean behin Andoni Aldape mallabitarrak entrenamendu tekniko egingo du nagusiekin. Andonik esperientzia zabala du: pilotari izandakoa da, Mallabiko pilota eskolan ibilitakoa, Diario Vasco txapelketan antolatzen ibiltzen da...

Klubean gaur egun dagoen juntagaitik ere geratzen da esku onetan. Ikusten ez den lan asko dago: zenbakiek koadratu egin behar dute, gauzak antolatu egin behar dira... Gogotsu dagoen junta interesgarria sortu dugu. Arlo hori ondo beteta dago.

**Urte bian epaile profesional izan zara. Horren falta ere izango duzu?**

Bai, handia. Aurrerantzean epaileen kudeaketa eramango dut, baina kantxako lan hori ere gustatzen zitzaidan.

**Pilotariak haserretzen zirenean ere bai?**

Beti egon dira pilotarien keak, eta beti egongo dira, baina badakizu hori "zirku" honen alde bat ere badela; ondo egiten baduzu, ondo, eta txarto egiten baduzu, ba txarto. Urdinaren aldeko erabakiak gorria haserretzeko du, eta gorriaren aldekoak urdina. Jokoaren parte da.

**"Baleki jendeak jaialdi baten atzean dagoen lan guztia! Beste mundu bat da; ikasten nabil"**

**"Frontoi batetik bestera nabil. Joan zen astean Durangon, Bilbon eta Arrasaten egon nintzen"**



Tabirako Baque taldeko jokalarik eta kideak lorpena ospatzen, joan zen asteburuko partiduan. LUIS ITURRIOZ

## SASKIBALOA

### Tabirako Baque ligako eta kopako txapelkun, denboraldi gogoangarrian

Durangoko saskibaloia kluba Lehen Nazional Mailako ligako txapelkun geratu zen joan zen domekan Landako kiroldegian

**Joseba Derteano** DURANGO

Tabirako Baque gizonen talde nagusiak denboraldi borobila osatu du: Kopan eta Ligan, bietan txapelkun. Iazko abenduan irabazi zuen Kopa, eta joan zen asteburuan liga txapelketa. Ez dago gehiago eskatzerik harrobitik baino elikatzen ez den klub bati.

Landako Kiroldegia bete egin zen San Prudentzioren kontrako partidu erabakigarria ikusteko. Lehenengo laurdena bisitariak irabazi zuten (20-22), eta atsedendira berdinketaz heldu ziren: 36-36. Tabirakok hiruga-

ren laurdenean hautsi zuen partidua, 21-9ko partzialagaz. Batez ere defentsan egindako lanari eskerrak, 12 puntuko aldeagaz ekin zioten azken laurdinari: 57-45. Azken hamar minutuetan, etxeok abantailari eutsi zioten zaleen animoek lagunduta: 72-60.

Tabirakoko jokalarien lanari dagokionez, Markel Aranzabalek 18 puntu sartu eta 10 errebote eskuratu zituen. Xabier Arroijtataureguik 15 puntu eta 8 errebote gehitu zituen, eta Lander Barruetañak 9 puntu eta 11

errebote. Jon Aldekoak 9 puntuz lagundu zion taldeari.

Liga irabazita, Hirugarren FEB Mailara igotzeko eskubidea irabazi dute. Orain, denen artean erabakiko dute igotzeko eskubidea gauzatu ala ez, klubeko iturrien esanetan.

**Emakumeek urrats handia**

Emakumeen talde nagusiak Lauko Finalera sailkatzeko urrats handia eman zuen joan zen zapatuan, etxean Unamuno talde mendean hartuta: 54-43. Elene Sarasuak 18 puntu sartu eta 6 errebote hartu zituen; Fatou Sanek 12 puntu sartu eta 9 errebote jaso zituen.

Taldeak bost garaipen daromatza segidan, eta liga amaitzeko jardunaldi biren faltan laugarren postuan dago. Domeka arratsaldean Gasteizko Araski taldearen kantxan jokatu du.



Joan zen asteburuko jokaldi bat, Tabiran. LUIS ITURRIOZ

## FUTBOLA

### Durangoko Kulturalak mailari eusteko adina puntu batu du

**J.D. DURANGO**

Durangoko Kulturalak Hirugarren RFEF Mailan jarraituko du datorren denboraldian. Joan zen asteburuko jardunaldiaren ondoren, matematikoki salbu dago, liga amaitzeko jardunaldi biren faltan.

Durangerrek ezin izan zuten Pasaia mendean hartu etxean, ezta golik sartu ere, baina husnako berdinketaz baturiko puntua nahikoa izan zen helburu nagusia lortzeko.

Horrela, Durangoko Kulturalak ez du askorik izango jokoan liga amaitzeko falta diren jardunaldi bietan, goiko postuak urrun daudelako. Hurrengo jardunaldian Real Sociedad C

taldea bisitatu du eta liga etxean amaituko du Santurtzi taldearen aurka.

**Liga gorabeheratsua**

Kulturalak sendo hasi zuen denboraldia. Sei jardunalditan ez zuen galdu, nahiz eta partidurik gehienak, sei, berdinketaz amaitu ziren. Iazko azaroa eta abendua ere emankorrak izan ziren: bost garaipen eta berdinketa bat kateatu zituen segidan. Azken aldiaren heldu da makalaldia. Otsailetik apirilera jokaturiko zazpi partiduetatik sei galduta beharantz egin zuen sailkapenean. Azkenengo hiru partiduetan bost puntu batuta lortu du estuasunetatik aldentzea.

## JOKALDIA



**GOTZON GOMEZ BARRENETXEA**  
ERRUGBIA

### Haize freskoa errugbian

Azken urteotan, kirol gehienetan aldaketa ugari izan dira eta errugbiak ez die aldaketa hauei ihes egin.

Epaileen artean, zorionez, aldaketa nabariena emakumezkoen agerpena izan da, eta nik izen bat aipatu nahiko nuke, Hollie Davidson epaile eskoziarra, hesiak apurtu eta bidea zabaltzen ari delako. Otsailaren 14an, Dublingo Aviva estadioan 150 urteko historia duen Sei Nazioetako errugbi txapelketan, aurreneko aldiz emakumezko batek gizonzkoen partida zuzentzeko ardura hartu zuen, Irlandako eta Italiako selekzioen artekoa. Baina bere ibilbidean ere une garrantzak eta mingotsak bizi izan ditu.

Davidsoni egokitu zitzaion, baita ere, errugbiko Challenge Cupeko final bat zuzentzen zuen lehen emakumea izatea. Partidako 26. minutuan Sam Underhill jokalarik ingelesak eta David Niniashvili Lyongo jokalari georgiarrak buruarekin tope egin zuten. Jokaldia behin baino gehiagotan aztertu ondoren, Davidsonek txartel horia zigor nahikoa zela erabaki zuen, eta arauzko 10 minutuko zigorra jaso zuen Bath taldeko hirugarren lerroak. Ez zen lehen aldia Hollierek bere burua halako egoeran ikusten zuena, lehiaketa bereko final zortzirenetako beste partida batean, Pau talde frantziarraren aurkako partiduan, Underhill txartel gorria erakutsi zion eta ondorioz zelaitik kanporatzeaz gain hiru asteko zigorra izan zuen jokalaririk.

Hurrengo asteetan, ospe handiko hainbat jokalarik, besteak beste Lawrence Dallaglio, Ingalaterrako kapitain ohiak, zalantzan jarri zituzten Davidsonen erabakiak hartzeko irizpideak. Zergatik antzeko egoeren aurrean erabaki ezberdinak hartu zituen? Davidsonen inguruan eztabaida mediatikoa zabaldu zen eta

handik egun batzuetara epaile eskoziarrak adierazpen batzuk egin behar izan zituen "Irizpide akatsa egin nuen bi jokalariren arteko buruz buruko kontaktuan, eta lokatzak nire izena eraman zuen".

Kexa ez zen bat-batekoa izan. Egoera jasanezina egin zitzaion, irainak gero eta larriagoak zirelako, eta bere familiak ere sare sozialetan sekulakoak entzun behar izan zituen. Horrek, hala ere, indartsuago bihurtu zuen. Lehen aipatu bezala otsailaren 14an errugbiaren historian sartu zen.

Bere helburuen artean, datorren urtean Australian jokatu duen Munduko Kopan aritzeko aukera izatea litzateke. Ez da erronka makala, baina kontuan izanik azken bi urte hauetan erakutsi duen maila eta oraindik oso gaztea dela, aurten 34 urte beteko ditu, edozer gerta daiteke. Bejondeizula, Hollie!

## GUARDIAKO BOTIKAK

## MAIATZAK 1, BARIKUA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## MAIATZAK 2, ZAPATUA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## MAIATZAK 3, DOMEKA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

## MAIATZAK 4, ASTELEHENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## MAIATZAK 5, MARTITZENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## MAIATZAK 6, EGUAZTENA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## MAIATZAK 7, EGUENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## ZORION AGURRAK

## Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/zorionagurrak](http://Anboto.org/zorionagurrak) helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.



**Ibai**  
Zorionak, Ibai, apirilaren 22an 11 urte egin dituzulako. Musu handi bat etxekoan partez.



**Oier Abin**  
Maiatzaren 3an Zaldibarko **Oier** Abinek 11 urte egingo ditu. Zorionak eta besarkada handi bat gurasoen, Aitzolen, aitite Valentinen eta amama Mari Carmenen partez. Belarri tirekada bat Errioxatik.



**Jony Txipolliny**  
3/4 urte beteta, gurutzetik salbata... bakien za, Don Jon! Urkiolan gora ta txuleta jaten, katiarik da miskau ta miskau: bixetan be earra hagin hotza. Zorionak, ene cookito SUGAAR, betiko hemen... zure MARI!!

## GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)

☎ 661 401 400

📌 Gozatu Gozotegia

📍 gozatugozotegia



**Zorionak Bego (1060.alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.



Urkiol gasolindegia  
ibilgailuetarako  
aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

**DIBA**  
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

# INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA Barrenkalea, 15 beheko - DURANGO Tel.: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
<p><b>ERAIKUNTZA BERRIA</b> <b>AZOKA BERRI</b> 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. 376.000 € -tik aurrera. <b>ARANDONOTORRE</b> Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trasteleku. C.E.E=B.</p> <p><b>AUKERA</b> <b>ERRETENTXU:</b> 62m2-ko lokala. Egokitua. Salgai. 53.500 €. <b>GARAI</b> Familia bakarreko etxea eraikitzeke lursaila. 240.000 € <b>SAN INAZIO</b> Garajea. 11.000 €. <b>ALLUITZ</b> Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehiota 2 kaletara. 110.000 €. <b>ABADIÑO</b> Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. 29.000 €.</p> <p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b> <b>IURRETA</b> 64m2. 2 logela, komuna eta sukalde handia. Terraza. Hegoaldea. CEE=F. 225.000 € <b>KOMENTUKALE</b> 125m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde-garbitetgia. Terraza. C. EE.=G. 298.000 € <b>SAN INAZIO</b> 104m2. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Ganbara eta garajea. CEE=E. 355.000 € <b>EZKURDI</b> 101m2. 3 logela eta sukalde-egongela. Ganbara. C.E.E= F. 344.000 € <b>MAÑARIA:</b> 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. Ikuspegiak. C.E.E=E 250.000 €. <b>BASERRIA, ZORNOTZA</b> Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. 470.000 €. C.E.E=F <b>MUNTSARATZ</b> Baserria. 670 m2. Familiabakarrekua. 500 m2-ko lursailarekin. C.E.E=F 525.000 €.</p> <p><b>LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI</b> <b>ABADIÑO</b> 136m2. Pabilioia. egokitua. 105.000 € <b>MURUETA TORRE</b> 44 m2. Kearentzako irteera. 50.000 € <b>ASKATASUN ETORBIDEA</b> 60m2. Lokala egokitua. 125.000 € <b>MATIENA</b> Trañabarren. 60m2.Salgai. etxebizitza egiteko aukera. 75.000 € <b>IZURTZA / PABILIOIA</b> 261m2. Egokitua. 195.000 € <b>DURANGO</b> 100m2. Lokala. Alde zaharrea. Egokitua. 115.000 € <b>MASPE</b> 150m2. Lokala. 90.000 € <b>KOMENTUKALE</b> 100m2. Lokala. Egokitua. 160.000 € <b>IURRETA</b> (Bixente Kapanaga). 117m2. Lokala. 75.000 € <b>ASTEPE</b> 40m2.Lokala. egokitua. 70.000 € <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 80 m2. Egokitua. Alokairuan. 1.600 € <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. Egokitua. Erakuslehiota. Alokairuan. 2.900 €. <b>DURANGO</b> Bulegoa. Erdialdean. 1.go solairua. 650 €. <b>JUAN MARI ALTUNA</b> 100 m2. Egokitua. Kea ateratzeko bidea. Alokairuan.</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI</b> <b>ALLUITZ</b> Garajea. Salgai. 17.000 € / Alokairuan 65 € <b>MENDIZABAL</b> Garaje itxia. 25.000 €. <b>ASKATASUN ETORBIDEA</b> Garaje itxia. 20.000 €. <b>MONTEBIDEO</b> Garajea. 10.000 €. <b>MONAGOTORRE</b> Garajea. Erdigunean. 13.000 €.</p>	<p><b>ETXEBIZITZAK SALGAI</b> <b>DURANGO</b> <b>ZUMALAKARREGI</b> 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria. <b>MONTEBIDEO</b> Berriztatzeke. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak. <b>MONTEBIDEO</b> 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia. <b>FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukalde, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatzeke. <b>FRANTZISKO IBARRA</b> 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukalde. 100 m2-ko terraza handia. <b>GOIENKALEA</b> 65 m2. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Balkoia. <b>KURUTZIAGA</b> 3 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeke. <b>BARRENKALEA</b> Logela bakarreko apartamentua. Sukalde, egongela logela eta komuna. Trasteleku. <b>IURRETA</b> <b>DANTZARI</b> 3 logela. Argitsua. 145.000 €.</p> <p><b>LURSAILAK SALGAI</b> <b>URRUTXUA</b> 9 hektareako 2 baso salgai. Errepedearen ondoan.</p> <p><b>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI</b> <b>IURRETA</b> Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea. <b>IURRETA</b> Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatzeke. <b>ABADIÑO</b> Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatzeke. Lursailarekin. Ganbara. <b>BERRIZ</b> Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeke. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz. <b>MAÑARIA</b> 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p> <p><b>BULEGOAK ALOKAIKIRUAN</b> <b>ABADIÑO</b> 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p><b>DURANGO</b> <b>ERMODO KALEAN</b> 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p> <p><b>LOKALAK ALOKAIKIRUAN</b> <b>ALDE ZAHARREAN</b>, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI</b> <b>MATIENA</b> 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. <b>ELORRIO</b> 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p> <p><b>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</b> <b>BERRIZ</b> <b>BERRIZ</b> Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepede ondoan. Leku onean kokatua.</p>	<p> C. E. E.: G. 179.000€</p> <p><b>DURANGO FRAY JUAN DE ZUMARRAGA</b> 49,80 m2. Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna duxarekin. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Igogailua. ITE-a 2025.urtean pasatutakoa. Garajea aparte erosteko aukera.</p> <p> C. E. E.: E. 184.000€</p> <p><b>DURANGO TABIRA</b> 66,21m2. Egongela, sukalde, 3 logela eta komuna. Balkoia. Berriztatzeke behar ditu, baina dagoeneko kristal bikoitzeko PVC-zko lehioak ditu. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde lasaia, zonalde berdez inguratuta eta erdigunetik gertu. Igogailua eta ITE-a pasatutakoa.</p> <p> C. E. E.: G. 280.000€</p> <p><b>DURANGO ZEHARKALEA</b> 130m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 5 logela eta 2 komun duxarekin. Egoera onean. Ur beroak eta berogailuak gas naturalarekin funtzionatzen dute. Etxe erdiak kanpora ematen du. Zerbitzuek gertu. Garaje bat edo 2 aparte erosteko aukerarekin + 18.000 €.</p> <p> C. E. E.: E. 148.000€</p> <p><b>DURANGO SAN FAUSTO</b> 47,66m2. Egongela-sukalde (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna duxarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Apartatzeko erraztasuna. Gaur egun alokairuan dago. ITE-a pasatutakoa.</p> <p> C. E. E.: G. 187.000€</p> <p><b>BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALEKUA</b> 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua duxarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatuta den igogailua du.</p>	<p><b>BERRIAK</b> <b>DURANGO</b> <b>ANTSO EZTEGIZ:</b> 3 logela, sukalde eta egongela. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F</p> <p><b>DURANGO</b> <b>ANDRA MARI:</b> 3 logela, sukalde, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 € / E.E.Z=E igogailu obra erosleean gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. <b>BARRENKALEA:</b> Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F <b>E.BUSTINTZA KIRIKIÑO KALEA:</b> 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 150.000 € E.E.Z=G <b>GOIENKALE KALEA:</b> Logela, sukalde egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F <b>SAN INAZIO AUZUNEA:</b> 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A <b>ZABALE KALEA:</b> 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 € / E.E.Z=E</p> <p><b>ABADIÑO</b> <b>DENDARIKO:</b> Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €. <b>TXINURRISOLO KALEA:</b> 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. 180.000 € / E.E.Z=E</p> <p><b>ATXONDO</b> <b>ARTEKALEA, 13:</b> Konpontzeko baserria lursailarekin. 300.000 €.</p> <p><b>BERRIZ</b> <b>MURGOITIO AUZOA:</b> Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 € <b>EITUA:</b> Berreraikitzeke baserria lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p> <p><b>GARAI</b> <b>MOMOITIO AUZOA:</b> Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p><b>IURRETA</b> <b>ZUBIAURRE:</b> 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p><b>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI</b> <b>KURUTZIAGA:</b> garajea. 18.000 €. <b>KURUTZIAGA:</b> Garaje itxia 22.000 €. <b>MADALENOSTE:</b> Garaje itxia eta trasteleku. 42.000 €.</p> <p><b>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI</b> <b>ANDRA MARI KALEA:</b> 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E <b>BARANDIARAN KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean. <b>IBAIZABAL AUZUNEA:</b> 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E <b>KOMENTU KALEA:</b> 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F <b>SAN MARTINPE ATARIA:</b> 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F <b>ZABALE KALEA:</b> 50 m2-ko lokala. 60.000 € / E.E.Z=F</p>

## Platanoak



JASONE  
AGIRRE GARITAONANDIA

Beti gustatu izan zaizkit platano zuhaitzak bide bazterretan, albo bietatik luzatzen direnean, pasabide moduko bat eginez. Eguzki printzen galbahe, sortzen dituzten argi jokoengatik ditut gogoko, edo garaiak direlako, ia zerua ikutzeraino; euren hosto zabalek ematen duten babesarengatik maite ditut beharbada. Ez dakit. Platano zuhaitzak, bestela ere, oso presente egon dira beti nire bizitzan, Abadiñoko etxe aurrean, Ferixalekuan, Gaztañodin... zenbaitetan ibili gara olgetan umetan euren gerizpean orri eta azal lehorrekin.

Hala ere, orain arte ez dut inongo jakingurarik izan zuhaitz horren jatorriaren inguruan. Lehengoan, baina, platanoz marraztutako halako bide batetik nindoala, ikertzea erabaki nuen. Begira hasi, eta hara zer aurkitu nuen. Hibrido bat da, XVII. mende inguruan sortua antza, baina ez dago argi non, nahiz eta berehala hedatu Europa osoan. Jakina da, berriz, hibridazioa Platanus occidentalis eta Platanus orientalis izeneko zuhaitz biren artekoa dela. Hau da, batak, Mendebaldekoak, Ipar Amerikan, gaur egungo Estatu Batuetan du jatorria, eta besteak, oster, Ekialdean, Asian, gaur egungo Iranen inguruan. "Asko da ba!", pentsatu nuen, mundua gaur egun zelan dagoen ikusita; naturak posible izan duena, ezin pertsonak.

## "Sanprudentzioetan gozatzea da nire plana, ahalik eta ekintzarik gehienetan parte hartuta"

IVAN RODRIGUEZ HOLGUIN SANPRUDENTZIOETAKO URTEKO PERTSONAIA

E.H. ABADIÑO

Abadiñoko Traña-Matiena auzoan prest daude asteburu luzeari aurre egiteko. Donien Atxa jasota hasi zituzten sanprudentzioak, astelehenean. Dantzarien erakustaldia egin eta urteko pertsonaia argitu ondoren, auzotarrak jai giroan murgildu dira. Jai batzordeak Ivan Rodríguez larrialdi zerbitzuetako langilea izendatu du urteko pertsonaia. Pandemian, oraindino maskararik ez zegoenean, euren eskuz babesgarriak josi zituzten 19 emakumeak izan zituen ondian.

**Modu berezian hasi dituzu sanprudentzioak aurten.**

Bai, egundokoa izan da. Ez daukat barbarik herritarrei emandako errekonozimendua eskertzeko. Momentu hartan egin behar zena egin genuen, eta denon onerako izan zen. Beti aritu naiz horrela. Eskerrik asko, ez daukat beste barbarik.

**Zelan gogoratzen duzu pandemia garaian egindako lana?**

Larrialdi zerbitzuetan lan egiten nuen. Etorriko zenerako ez zegoen ezer aurreikusita, ezer prestatuta, eta genituen baliabideekin ahal izan genuena egin genuen. Babeserako ekipamenduen ordezkoak sortu genituen, zelan-halan. Materiala biltzeko, hainbat lekutatik babes handia jaso nuen: sare sozialen bitartez egin nuen deialdia, profesionalak babesteko eta segurtasunez ahalik eta zaintzarik onena emateko



Ivan Rodriguez, San Prudentzio bezperan emandako oroigarria eskuetan duela.

helburuagaz. 1.000 kilometro egin genituen, eta mila esker Geu Be elkarteari furgoneta uzteagaitik. Egutero 07:00etan esnatzen ginen babes materiala batzeko. Beharizanik handiena egoitzetan zegoen. Premiarik handiena zutenen beharriaz erantzuten ahalegindu ginen.

**Asteburu luze bi dituzu aurretik. Zein da plana?**

Ondo pasatzea, jai giroan. Sanprudentzioetan gozatzea da nire plana, ahalik eta ekintzarik gehienetan parte hartuta. Jaiak



lagunekin eta auzokoekin gozatuko ditut. Izan ere, Traña-Matienak badu zeozer berezia: herri legez elkartzen gara jaientan. Bestela ere bai, baina sanprudentzioetan gehiago igartzen da hori.

**Zer ekintza ez duzu ezergaitik ere galduko?**

Mozorro eguna, paella lehiaketa, kontzertuak... ahal dudan guztietan parte hartuko dut. Gorputzak eusten duen bitartean, jakina, dagoeneko ez ditugu 20 urte eta (barrez).

**Zelan ikusten duzu giroa? Zelako jaiak dira sanprudentzioak?**

Sekulakoak dira! Adin askotariko jendea batzen gara eta berdindu digu zein pentsamendu duen albokoak. Denok sentitzen gara Traña-Matienakoak, eta denok batera goaz. Deskribapen ona da, ezta?

**Beti izan zara laguntzeko pertsona. Elkarri laguntzeko joera hori ikusten duzu sanprudentzioetan?**

Aurten gazte asko ikusi dit Donien Atxa jasotzen. Badago harrobia, ona gainera, eta horrek ilusioa pizten dit. Gazteria jaiekin eta herriagaz oso konprometitu ikusten dit.

**Oroigarri bat eman zizuten San Prudentzio bezperan. Leku bereziren batean ipiniko duzu?**

Etxeko egongelan, egunero ikusi ahal izateko. Gainera, nire lagunik onenatariko batek egin du, Eneko Muruak. Eskerrak emateko aprobetxatu gura dut. Gainera, Trañako Gudariak futbol taldeko *misterra* da. Egutero askotan egoten gara elkarregaz, baina 'azeri' horrek isil-isilean izan du kontu hau (barrez).

**Desio bat aurtengo jaietarako?**

Inolako eraso edo biolentziarik ez egotea. Giro ona sortzea eta denok jaietz disfrutatzea. Horixe da Traña-Matiena, auzo elkartua, eta denok dira ongi etorriak.

### Motzean

**Jaietarako menua?**

Arroza. Gauean, ogitartekoa.

**Edaria?**

Kalimotxo eta Gin-tonica

**Ibuprofenoa ala paracetamola?**

Paracetamola.

**Gaupasarik luzeena?**

Ez dut inoiz egin. Batzuetan gauak harrapatu arren, gurago dut eguna. Kuadrilla osoa elkarrekin egoten gara.

**IURRETA**  
Lanbide Heziketa

www.iurretalhi.eus  
idazkaritza@iurretalhi.eus  
Tel: 944 66 88 00

**ERDI MAILA**

- Administrazio Kudeaketa (A eremuan edota D eremuan egiteko aukera)
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta

Instalazio elektriko eta automatikoen eta telekomunikazioen GRADU BIKOITZA (3 ikasturte)

**BERRIA**

**GOI MAILA**

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produkzioaren Programazioa
- Zuzendaritzari laguntza (bigarren maila)

**BERRIA**

**HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA**

- Informatika eta komunikazioak

**AURREMATRIKULA** (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)  
Maiatzaren 4tik 22ra arte

**"guztiak D eremuan"**